



Olentzeroren zain

Joxe Migel
Barandiaranen
biografia

Jon Mikel Murua
nekazaritza
diputatua

Aralar
Parke Naturala
liburua kalean

Urteari
errepaso

3+1

ERREBELATU SEMI-MANUALA

GURE BETIKOA

3 ORDAINDU ETA
4 KARRETE ERREBELATU

ZUZENKETAK
ARGAZKIZ-ARGAZKI



13x18 ARGAZKIAK
NEURRI HANDIA



ERREBELATU

ERREBELATU AUTOMATIKOA


AUKERA MERKEENA

AUTOMA
TIKOAN
MERKEAGO

ZUZENKETARIK
GABEKO
ARGAZKIAK

ORAIN BAKARRIK
30
pta

*+ERREBELATUA+B.E.Z.



GONARTE
ENMARCACION

Tel. eta Faxa 943 161871
Urdaneta, 52 ORDIZIA

Carpinteria
onzález
Enmarcación

☎ 943 88 23 88
Nekolalde, 22 BEASAIN



Barandiaran ZERAMIKAK

Zorionak eta Urte Berri on!



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

Non zer

6 Eskutitzak

7 TXANDAKA: Patxi
Zubizarreta

9 KATE MOTZEAN: Goreti
Larrañaga

10-11: Joxemigel Barandiaran

12-13: Jon Mikel Murua
Nekazaritza eta
Ingurugiro diputatua

14: Presoak gose greban

17-27: URTEKARIA

28-44 KRONIKAK

MUTILOA 28, ORDIZIA 29,
OLABERRIA 30, LEGORRETA
30, ATAUN 31, GABIRIA 32,
BEASAIN 33, IDIAZABAL 34,
ORMAIZTEGI 35, ITSASONDO
38, SEGURA 39, ZALDIBIA
40, LAZKAO 43, ZERAIN 44,
ZEGAMA 44.

45: EUSKARA: Ordiziako
Euskara aholku batzordea

46-47: GABONAK: Opariak
erosteko aholkuak

48-49: KULTURA: Aralar Parke
Naturala liburua

50: Asto karrera Gabirian

51: Debaldeko iragarkiak

52-53: Agenda

54: FOTOZAHARRA:
Beasaingo Ikastolako
lehen ikasleak



Ordiziako Eguberrietako azoka berezia abenduaren 29an

Euskadiko I. odolki txapelketa jokatu da

Mendeko azkenengo Ordiziako azoka abenduaren 29an izango da. Eguberrietako aparteko azoka egun horretarako antolatu dute.

Ohiko baserritarren produktuez gain, beste hainbat ikuskizun eta erakusketa izango da. Arboledan, kapoi, antzar eta indi-oiloen XV. erakusketa izango da; Garagartza plazan, errezil sagar, fruitu, fruitu lehor eta ardi latxa erakusketak izango dira; pilotaleku inguruan azkenik, ostrukak eta oreinak ikusteko aukera izango da.

I. Euskadiko odolki txapelketa

Iaz, Gipuzkoako txarkuteroen gremioak, Gipuzkoako txistorra eta odolki txapelketak egin zituen Ordizian bertan, abenduaren 16an eta 30ean. Aurten Gipuzkoako eta Bizkaiko txarkuteroek bat egin dute gipuzkoarrekin eta hiru

herrialdetako txistor eta odolki txapelketak egitea erabaki dute.

Txistor lehiaketa, Santo Tomas egunaren aurretik egin dute, abenduaren 15ean, aldizkaria inprentara eraman genuen egunean. Beraz, irabazlearen berri hurrengo aldizkarian izango duzue.

Odolki lehiaketa, berriz, abenduaren 29an, Eguberrietako azoka berezian, egingo da, Beti Alai pilotalekuan.

Igeriketa txapelketa

Eguna Ordizian pasatu nahi duenarentzat, arratsalde parterako ere bada beste kirol ekitaldi garrantzitsu bat: 'XVII. Eguberrietako Aldundiko Nazioarteko Sari Nagusia, Ordizia 99' jokatu da, Majori kiroldegian, arratsaldeko 4,30etan hasita.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 94388 96 12 Faxa: 94388 27 19

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Erredakzio Batzordea:** Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz. **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Elordi Garzia, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Agurtzane Bikuña, Gabino Murua, Saroi Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Aitziber Murua, Nagore Etcheberria, Iñaki Ugalde, Mari Flor Mendizabal, Mari Jose Alustiza, Maizpide euskaltegia, Mamen Antelo eta Patxi Zubizarreta.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.800 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**

ekin



Ekin: askatasunaren eta sozialismoaren aldeko antolakundea

Azaroaren 6an jendaurrean aurkeztu zen Ekin erakundea Iruñean. Itsasondo, Ordizia, Ataun, Lazkao, Legorretan aurkezpenak ere egin dituzte eta taldeak lanean ari dira dagoeneko. Ekineko bi

ordezkarik eman digute informazio zabalagoa.

Ezker abertzaleko taldea da Ekin. Erakunde berri honek, ezker abertzalearentzat osagarri izan nahi du, "herri borroka eta gizarte mugimenduak astinduz", diote Aitor Garmendia eta Unai Agirre Ekineko kideek. "Euskal herritarrok, euskal gizarteak garatu duen autorganizazio eta auzolanerako gaitasuna indartu eta are eraginkorragoa bilakatu dadin lan egiten dugu. Indar sozial horiek bere autonomian gara daitezen erakarriz", gaineratu dute.

Independentzia eta sozialismoa ditu helburu Ekinek. Erakunde nazionala da, "bere azterketetan eta jardueran Euskal Herri osoa hartzen du kontuan". Erakunde euskalduna da, "barne eta kanpo funtzionamenduz". Erakunde eragilea da: "gai ezberdinen inguruan herrietan gatazkak sortzea du helburu, tentsionatzea. Gatazkak zentzu onean. Lo dauden gaiak badaude eta eraikuntza nazionalaren inguruan lan egin nahi baldin badugu, gaiak azaleratu egin behar dira eta horretarako gatazkak sortu behar dira, gai horien inguruan lanean ari diren taldeekin kolaborazio esparruak sortuz", argitu du Aitor Garmendiak. Herrika lan egiten du Ekinek. Herri mugimenduetan txertatuta lan egitea dute helburu.

Euskara, irakaskuntza eta sozio-ekonomia arloetan hasi da lanean, "Euskal Herria eraikitzeke oinarritzko zutabe bezala ikusten ditugulako", dio Unai Agirrek. Beste bi arlo ere jorratzen ari dira: batetik presoen gaia eta bestetik 'Alde hemendik' dinamika.

HB-Ekin

Gaizki ulertuak egon dira Ekinen inguruan Aitor Garmendiak adierazi digunez. "Ekinen eginkizuna ez da beste erakunde baten eginkizuna ordezkatzeko. Gure eginkizuna da egon daitezkeen gaien inguruan gatazkak sortzea eta gizarte astintzea. Herri Batasunak eta beste alderdi politiko batzuek beraiei planteamenduak egingo dituzte eta beraiei proposamenak egingo dituzte. Herri Batasunak gure ikuspuntua emango dugu".



Bilkura ixilak

ETak su-etenaren etetea iragarri zuen egun berean, abenduaren 3an, 5 minutuko bilkura ixilak egin ziren udaletxe aurreetan 'Bakea behar dugu' lelopean. Alderdi politiko guztiek bat egin zuten deialdiarekin. HBekok, beraiei pankarta zabaldu zuten, 'Bakea eraikitzen, Euskal Herriak du hitza eta erabakia' leloarekin.

Garcia del Molino preso ospitalean

Bularrean min handia sentitu zuela eta, Basauriko espetxetik Basurtuko eritexera eraman zuten abenduaren 11n. Senideen esanetan bularreko angina izan zuen. 68 urte ditu Antton Garcia del Molinok eta 1996tik zigorraren 3/4 bete dauka. Hernia diskala eta Meniere sindromea ere baditu.

Kepa Mujika gose greban


Asier Irastorzak abenduaren 4an utzi zuen azaroaren lehen hasitako gose greba. Kepa Mujika ordiziarra, berriz, gose greban sartu da.

Legorretako araztegia

Oria ibaiko urak garbitzeko Legorretako araztegia datorren urtean bukatuko dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.038 milioi pezeta emango ditu horretarako. Oria ibaia- ren bideraketa lanak ere egingo dira Itsasondon.

Osinalde-Goikoa baserria erre

Ezkio-Itsasoko Osinalde-Goikoa baserria erre zen azaroaren 26an.



ondoeta

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Eguberrietako irratsaio bereziak Segura Irratian

Gabon egun hauetan saio bereziak izango dira Segura Irratian. Abenduaren 21etik urtarrilaren 5era bitartean, haurrentzat saio bereziak izango dira. Prycak emandako mendi bizikleta zozketatuko da.

24an, arratsaldeko 4etatik 7,30etara, Igor Sarriegi eta Alaitz Sarasolaren aginduetara, Imanol Lazkano eta Jokin Sorozabal bertsolariak, Tapia ta Leturia trikitilariak, Mikel Markez abeslaria eta Iñigo Perurena imitatzaile eta txiste kontalaria arituko dira.

3In ere, ordu berean, saioa berezia egingo dute, nahiz eta oraindik zehaztu gabe dagoen nortzuk parte hartuko duten. Hala ere, Mari Jose Bermejo etorkizun igarlea eta Iñigo Perurena imitatzailea egongo direla aurrera genezake.

Sasietak: edukinontzi horiari buruzko sentsibilizazio kanpaina arrakastatsua

Sasietak Mankomunitateak apirilean martxan jarri zuen edukinontzi horiari buruzko sentsibilizazio kanpaina arrakastatsua ari da izaten. Harreman zuzena lortu nahi izan dute Sasietakoek Behi Bi's taldearen kale-antzerkiarekin eta Sasietako instalazio ezberdinetara egindako bisita gidatuekin.

Behi Bi's taldeak 32 emanaldi egin ditu. Zuzenean 4.800 lagunek hartu dute parte eta zeharka 8.000k. Sasietaren instalazioetara egindako bisita gidatuetan ia 600 lagunek parte hartu dute. Segura Irratian ere egin dute irratsaio berezia.

2000. urtearekin batera, gida berezia buzoneatuko dute, berziklaketarako material ezberdinak, berziklatutako materialarekin zer egingen den... eta abar azalduz.

kirolak

Erauskin auzorako II. auto igoera

Beasaingo Erauskin Auzorako II. auto-igoera jokatu da abenduaren 19an, Beasaingo Ikastolak eta Azpeitiko eskuderiak antolatuta eta Beasaingo Udalaren eta hainbat laguntzaileren laguntzaz. Goizean, 9etatik ordu batera izango da. Autoek hiru igoaldi egingo dituzte. Besteak beste, bertan izango dira Andres Vilariño eta Aitor Zabaleta pilotuak.

Aitor Begiristain

Aitor Begiristain olaberriarrak futbola utziko du. Japonen aritu da jokatzen azken urteotan. Agurra, Gabonetan, Euskadiko futbol selekzioak jokatu duen partiduan egingo zaio.

Amaia Insausti

Donostiako maratoian bigarren egin zuen Amaia Insausti Olaberriako korrikalariak. 2h46'24"ko denbora behar izan zuen Insaustik maratoia bukatzeko.



ITSASOKO OSTATUA

- ✓ Etxeko sukaldaritza.
- ✓ Eguneroko menua 800 pta.
- ✓ Udaberrian terraza zerbitzua

Aldez aurretik erreserba egiteko:

☎ 943 88 03 15

Arkupe tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak

Mantak - Mairidreak - Storeak

Toallak - Gortinak eta osagalak

J. M. Barandiaran Plaza

☎ 943 88 00 84

ORDIZIA



MUJIK



BEASAIN ☎ 943 88 74 00



MUJIK

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19

☎ 943 88 11 94

ORDIZIA

UNTXUNDEI

garajea

OSINALDE

karrozategia

☎ 943 88 28 21

☎ 943 16 07 06

ORMAIZTEGI

Ani Otegi, gose greba mugagabea dagoen Asier Irastorza presoaren ama:

"Pena ematen dit gizarteak oraindik ez duelako barneratu presoek gose greba"

Azaroaren 1ean hasi zuten euskal preso politikoek kolektiboak gose greba mugagabea. 20 lagunek hasi zuten, tartean da Asier Irastorza ordiziarrak. Ani Otegi, presoaren amarekin izan gara gose greba hau familian nola bizi duten eta semea nola dagoen jakiteko asmoarekin.

Abenduaren 1ean egin genion elkarrizketa Ani Otegi-ri. Basauriko kartzelan duen semeak, 31 egun zeramatzan gose greban. 15 kilo galduak zituen. Giblean arazoren bat edo beste hasita. "Ikusita inpresioa egiten du, halako aurpegi 'txupatua' eta halako begizuloak ikusita", dio Anik. Baina moralez eta animoz oso ondo omen daude. "Oso animoso eta oso mentalizatuta daude eta eraman-garriagoa egiten da. Baina horrek ez du eguneroko kezka kentzen".

Basauriko kartzelaren kasuan, ziegetan berogailurik gabe daude, nahiz eta presoak eskatu. "Martutenen eta Langraitzen medikuek beraiek eskatu zioten kartzelako zuzendariari horrelako egoeran berogailua beharrezkoa dela argudiatuz. Basaurikoak ordea, ez du baimenik eman. Basaurin liburutegian bakarrik dute berogailua eta hara joaten dira berotasun bila. Ziegan arropa eta manta pilo batekin egoten dira", dio Anik.

Arrazoiekin bat

Informazio hau irakurtzerakoan ez dakigu zein izango den presoaren egoera. Baina gose greba mugagabea egiten ari dira eta beti 20 lagun egongo dira gose greban. Batzuek utzi ahala, beste batzuk hasiko dira.

"Euskal presoek euskal nazio eraikuntzan parte hartzeko amnistia, Euskal Preosak Euskal Herrira ekartzea, beraiei militantzia politiko-



Asier Irastorza.

ak eskatzen duen izaera politikoa aplikatzea, gaixorik daudenak kaleratzea, 3/4 beteak dituztenak kaleratzea eta entrega eta estradizioekin amaitzea" eskatzen dute presoek gose greba honekin.

"Beraiei argudioak entzunda, gose greba honek bere justifikazioa baduela ikusten dut, nahiz eta beraiei osasuna arriskuan jarri. Presoak erakusten ari dira zein borondate daukaten eta zertarako gai diren", argitu diugu presoaren amak.

"Prozesu honetan sinisten dutelako eta gose greba honen bultzada bat emango diotela pentsatzen dutelako, prozesuan hemen egon behar direla esaten dute. Baina gizartetik ez dute bultzada handirik ikusi", salatu du.

Mugitu beharra

"Presoak bizia jokatzeko ari dira eta gizarteak oraindik ez da konturatu presoek ekimen honetan. Gizarteak ez dakit zenbaiteraino barneratu duen presoek ekimen hau, eta ekimen hau ez da beraiei eskubideak bakarrik lortzeko, gizarte guztia berritu, prozesuak aurrera egin dezan eta gatazka bukatu dadin. Gizarteak gehiago ez asaldatzeak pena ematen dit. Ez du balio bakarren bat hil edo oso gaizki ospitalaratzean asaldatzea. Lehenagotik mugitu behar da, presoek ez dezaten gose greba mugagabea luzatu", gaineratu du Ani Otegi.



IBAI-ONDO

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
Logela, egongela eta sukaldetako altzariak
nahiz osagarrietan aukera paregabea

ERAKUSKETA ☎ 943 88 05 43
Antzizar Auzoa, z/g BEASAIN



LADA
Ssang Yong
N-1, z/g
☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA
Iurre Auzoa
OLABERRIA

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

UDALAK SUSTATUTAKO ETXEBIZITZEN SALMENTA

INFORMAZIOA:

Lanegunetan:

☎ 943 16 21 92

Larunbatetan:

10:00 - 12:00

Altzagako Udaletxean



ALTZAGA



Patxi Telleria

Eguberriak


Zeruko misterioak
isuriz mundura,
gurtu zagun Belengo
sendi on ura;
presta gaiten merezi
luketen modura,
bildu gaitezen denok
beren ingurura,
jarri agindura,
guretzat onura,
nok geronen gura,
urkoari ardura,
Belenera eskerrak
grazik zerura.

Eguberri jaiezko
jarraipen onari
ospatu dezaiozun
Jesus aurrari;
zarrak eta gazteak
sano eta eri,
bide ortan guztiok
baginake ari,
goazen kantari,
guztiok koplari,
berri on kontari,
badakigu nori:
Jesusi, Joseri ta
denon Amari.

Pospoloak

URTEKO AZKEN GAUA ZEN, gabon zaharra alegia. Hotz egiten zuen, hotz handiegia, eta neskaila bat hanka hutsik zebilen, izoztua, gosetua, eskuetan pospolo batzuk salgai zeramatzala. Baina pospolo bakar bat ere saldu ez, etxera itzultzen ausartu ez, eta kalekka batean babestu zen. Han, hormaren kontra eseri eta, hotzaren hotzez, pospoloak piztea erabaki zuen. Lehendabizikoak berogailu baten ondoan zegoela sentiarazi zion, bigarrenak mahai bat janariz betea ikusarazi, hirugarrenak gabon zuhaitz bat bete opari imajinarazi... Baina zuhaitza, mahaia eta berogailua hurrenez hurren desagertu zitzaizkion pospoloak itzaltzearekin batera. Orduan begirada zerura altxa eta izar iheskor bat bistatu zuen. Amonak esana zionez, izar bat erortzen den bakoitzean, arima bat igotzen da zerura. Baina gehiago pentsatzeko betarik izan gabe, laugarren pospolo piztu eta haren argitan nor eta amona bera agertu zitzaion, amona zena. "*Eraman nazazu zurekin!*", oihu egin zion neskak. Eta amona zuhaitza, mahaia eta berogailua bezala desagertu ez zedin, bosgarren, seigarren eta gainerako pospolo guztiak piztu zituen. Amona orduan eder baino ederrago azaldu zitzaion eta neskaila zerura eramane zuen, hotz, gose eta beldur gabeko tokira alegia. Urte berri egunean neskaila baten hilotza topatu zuten, irribarrea ezpainetan, ondoan pospolo erreak zituela. "*Berotasuna bilatuko zuen gajoak*", esan zuten, baina inortxok ere ezin izan zuen imajinatu zer nolako argitasuna, zer nolako berotasuna sentitu zituen hark gabon zaharrean.

AHAZTU SAMARTUA IZAN ARREN, denok dakigu aurreko ipuin hori Hans Christian Andersen idazlearen *Pospolo saltzailea* dela. Kontatzen digun pasadizoa hunkigarria da eta guregandik kanpora begiratzeko deia egiten digu, hanka hutsik, esku hutsik daudenak aintzat har ditzagun. Baina hori bezain garrantzitsua da gure baitara, gure barnera begiratzea edo, beste modu batez adieraztearen, geure buruari ere kontu egitea. Hori Andersenek ez, baina Laura Esquivel idazleak gogorarazi zigun *Como agua para chocolate* nobela zoragarrian. Haren esanetan, pertsona pospolo kaxa bat darama bere barnean, eta pospolo horiek piztuko badira nahikoa da konpainia atsegin bat, afari goxo bat, laztan bat, doinu bat, liburu bat... Pospolo horientzako txinparta pizgarria aldatu egiten da pertsonatik pertsonara, eta bakoitzak aztertu beharra dauka nola pizten duen bere baitako sua. «Bizi ahal izateko, pertsona bakoitzak deskubritu egin behar du zerk pizten dizkion barne pospoloak, izan ere sortzen den su horrek arima janaritzeko balio dio. Arriskutsua izan daiteke norberak bere txinparta pizgarri horiek garaiz ez deskubritzea, izan ere pospoloak umeldu eta berriro sekula ez pizteko moduan gera daitezke.» Gabonak, mende amaierak eta milurteak gorabehera, horixe da Andersenek eta Esquivelek egiten diguten deia: zoriontsu izaten saiatzeko, berotasuna bilatzeko, barnean eta kanpoan...

Patxi
Zubizarreta

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Zorionak eta Urte Berri on!

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN



Mari Jose Alustiza

Jos&Bel
ileapaindegia

Irudia zaintzeko joera areagotu egin da gizarteko konpromezuak handitu egin diren neurrian. Ilean islatzen dira pertsona bakoitzaren egoera ugari. Arazorik gehienak buru azaleko koipearen eta uraren desorekarengatik sortzen dira. Ilea sortzen duen larri azal horrek beharrezkoak ditu bi elementu horien kopuru neurri egokiak, era horretan hartzen baitu elikadura eta babesten da kanpoaldean sor daitezkeen arazoei aurre egiteko.

Faktore asko dira desoreka hori sortzen dutenak: gaisotasunak, stressa, lan ingurua, arazo hereditarioak,

Ilea: zaindu beharreko edertasuna

ikasketak, arazo hormonalak, eta abar. Era ezberdinetan azaltzen zaigu: kaspera, dermatitis, deskramazioa (irritazioa eta hazkurea) izaten dira nabarmenenak. Baita koipe eta ile erortzeak ere.

Arazo batzuk badira gure bizitzan aldaketa txiki batekin konpondu ditzakegunak. Beste batzuk sendagileak sendatu behar ditu. Baina gehienek terapia egoki baten laguntzaz hobekuntza handia izaten dute. Garrantzi handikoa denez gero, ahalik eta azkarren profesionalen aholkuarekin konponbidea jarritzea da hoberena.

Jende askok kasu handia egiten die telebistako iragarriari, txanpurik onenak P.H. 5,5ekoak direla neutroak direlako, e.a.

Ez dira eta ez daude ile eta buru azal guztiak egoera berean, kasu batzuetan P.H. 5 ekoak behar dira eta 6 edo 7koak beste batzuetan. Hau da, neutroak, alkalinoak edota azido gehiagokoak. Urak ere zer ikusi handia dauka, manantial batetik bestera izugarritzko aldea dago, ur mota batzuk kare gehiago dute eta metal neurri ezberdinak, eta zer esanik ez kloroak.

Datorren milurterako joerak

Esan liteke 2000. edo datorren milurte honek ondorio izugarriak eduki behar dituela eta ileapaindegia munduan ere aldatuak hala izango direla, ba ia guztiz kontrakoa, naturaltasuna eta minimalistagoak dira joerak, bakoitzari ondoen doakiona, bai forma, kolorea eta bolumena sinkronizatuz.

Alternatiba bezala, eta azken boladan indar handiz sartzen ari zaiguna, estentsioak, rastak, ile ordekoak dira luzera, kolore eta matiz guztietan. Fibrak ere kalitate ezberdinetakoak. Gure ustetan joera honek arrakasta handia edukiko du batez ere gazteetan.

Lehiaketa

Galdera

Noiz hil zen Joxemigela Barandiaran Ataungo ikerlaria?

Erantzuna urtarilaren 10erako bidali behar da, Ordiziako 124 posta-kutxara. Bertan izena, helbidea eta telefono zenbakia zehaztuz

Saria Joxemigela Barandiaranen biografia liburua eta GOIERRITARRAREN kamiseta.

Aurreko irabazlea

Aurreko galderaren erantzuna Tolosako Eskolapiotetan da.

Irabazlea:

Nagore Dorronsoro (Ordizia)

JOS & BEL

ILEAPAINDEGIA

Urdaneta, 15 ☎ 943 88 82 52 ORDIZIA



- Azken teknika eta nobedadeak
- Ospakizunetarako orrazkera bereziak
- Tratamendu bereziak: ile erorketa, e.a.
- Makilajeak, Manikura...
- Kosmetika osagaiak



Presio altuko solariuma



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Zorionak eta Urte Berri on!

**Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN**

Euskara txukunean

Dagoeneko / Honezkero

Dagoeneko eta **honezkero** / **Honezkero** eta **dagoeneko**. Jende askok nahasten duen bikotea. Ez dira euskalki guztietan erabiltzen, nonbait. Hortik gero nahasketak, baita zenbait komunikabidetan ere. Goierrin geure-geureak ditugu dagoeneko eta honezkero, hau da, etxean ikasi ditugu. Eta ondo ikasia, ez omen da ahazten. Ea besteei, geure ondorengoei, irakasten asmatzen dugun!

Dagoeneko

Dagoeneko formak harridura adierazten du. Adibidez: Goizeko 8ak dira eta zigarroa erretzen ari den horri harridura galdetuko diogu **Dagoeneko zigarroa erretzen ari al zara?** Azaroan gaude eta telebistan turroiari buruzko iragarki bat ikusi ondoren, harridura esan diogu lagunari **Dagoeneko turroia hasi da.**

Honezkero

Honezkero formak, berriz, beste zerbaitek adierazten du. Seguru ez bazaude ere, zuk suposizioak, zure kabalak egiten dituzu. Adibidez: Gaueko 10ak dira eta halakori deitzeko esan dizute, eta zuk zera esan diezu: **Ez, ezin deituko diogu, hura honezkero ohean da eta.** Hau da, ez dakizu ziur, ikusten ez duzulako, baina badakizu goiz jotatela ohera eta horregatik esaten duzu **honezkero ohean da.** Beste adibide bat: **Honezkero bukatuko zuten bilera.** Zure ustea adierazi duzu horrekin, ez dakizu seguru bilera bukatu duten ala ez, baina hala iruditzen zaizu, zuk zeuk dituzun arrazoiengatik.

Olentzero ala erregeak?

Olentzero.

Eta zer eskatu diozu

Olentzerori?

Sorpresa izaten da.

Ikatz norentzako?

Sexu erasotzaile, bortxatzaile eta torturatzailerentzat.

Eta urrea?

'Giraldilla'z disfrazatu ziren presoan aldeko solidarioei.

Oparitzeko liburu bat?

Euskaraz: 'Bekatuaren itzala'. Gaztelaraz: 'La mujer habitada'. Kanpotarrentzat: 'Euskal Herria: herri bat'.

Jostailua didaktikoa ala dibertigarria?

Jostailua aukeratu behar da; izan ere, oso didaktikoa iruditzen zait benetan dibertitzea.

Txikitako zein jostailu duzu gogoan?

Egurrezko armairu txiki bat, barruan altzariak zituena.

Gabon gaueko afarirako menua

Azalorea eta haragia; gainera kainatak prestatua!

2000. urteari ongi etorria egiteko plan bat:

Berezirik ez. Urtero bezala familian eta irrintzi batekin.

2000 efektuari beldurrik bai?

Beldurrik ez. Aditzearen poderioan, kezkatzen hasia, baina aurre egingo diogu.

Amets bat?

Euskal Herria nazio independentea, justizian eta berdintasunean oinarritua.



**Goreti
Larrañaga**

Gerriko liburudenda

SOROZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako baimenak:
B+E, G+E, D+E, A1 eta A

Aita Urdaneta ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B. KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO



Astelehen
gauetan
itxita.

TXOTX denborakdiaren irekiera
urtarrilaren 8an
Egun horretan sarrera doan eta gaua
trikitariekin alaitua.

Zubierreka, 9

☎ 943 16 25 23

LAZKAO

**ABENDUAREN
24 GAUETIK
URTARRILAREN
1era ARTE
ITXITA**

Jon eta Jexux Aizpurua Barandiaranen biografiaren egileak: "Gure euskaldun izatearen esplikazioa Joxemigelek eman digu"

Elkarlanean argitaletxearen 'Biografiak' sailak argitaratu du Joxemigel Barandiaranen biografia. Urtebetean, larunbat arratsaldeetan, Joxemigelekin izandako hizketaldien grabazioetan oinarritu dira liburua idazterakoan. Ikerlariaren giza alderdia agertu nahi izan dute, "pertsona arruntaren izaera agertu nahi izan dugu".

"Elkarlanean argitaletxeak Koldo Aldabe Ataungo kazetariari eskaini zion Joxemigel Barandiaranen biografia idazteko aukera. Koldo Al-



dabek egokienak gu biok izango ginela esan zien, Barandiaranekin oso gertu ibili izan garelako. Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiogu Koldori", argitu nahi izan dute Aizpurua anaiek ezer baino lehen.

Joxemigel Barandiaranen ahotik jasotako grabazioetako materialarekin osatu dute liburua. Gai eta pasadizo asko eta asko kanpoan utzi be-

har izan dituzte, biografia lan honek dituen luzera neurriengatik. Orain arteko biografietan ez bezala, azkeneko urteak ere bildu dituzte: hileta elizkizunak, gaixoaldia...

Edozeinek irakurtzeko moduko biografia idatzi dute. Kapitulu motxetan banatua, edozein orritan irikita, haria jarraitzeko modu-

koa.

Aurreratua

Aurreratua, aintzindaria, jakintsua, jakin nahi handikoa, kontalaria eta umila. Horrelaxe laburbildu digute Aizpurua anaiek Joxemigelen izaera. "Europara hiru lagun joango ziren garai hartan eta horietariko bat Joxemigel zen. Jakin-nahi handia zuen, erlijio eta zientzia al-

detik. Filmagintzan ere ikusten da. Mende honen hasieran ere kezkatuta zegoen ohiturak, lanabesak... galtzen ari zirela eta filmatu egin zituen", adierazi digu Jexuxek. "Gauza asko jakingo zituen eta kezka asko izango zituen, baina hurbileko jendearekin lasai egon nahi izaten zuen", gaineratu du Jonek.

Euskal kontzientzia

Joxemigel Barandiarani zer zor ote diogun galdetu diegu ataundarrei. "Lizarra-Garazirik ez zen izango Joxemilik izan ez balitz. Berak eman digu euskaldun izatearen oinarritzko esplikazio zientifikoa. Herri hau nola sortu zen, gure aurrekoak nolakoak ziren... kontzientzia historikoa bat sortu zuen. Gure euskaldun izatearen esplikazioa berak eman digu, berak egindako lanari eta ikerketari esker".



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Zrionak eta Urte Berri on!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN



MAPFRE
ASEGURU TALDEA

Eguberri zoriontsuak!

Pello Barandiaran

© 943 16 13 61
**Hirigoien, 18
LAZKAO**

Goierrri bus

*Segurtasun eta kalitatezko
zerbitzua*

Tel.: 943 72 52 50
Faxa: 943 72 58 70

Mota guztietako autobusak
19, 29, 55, 60 eta 82 plaza-
takoak
Literadunak komunarekin



Jon eta Jexux Aizpuruak Joxemigel Barandiaranekin eginda-ko hizketaldietatik ateratako historitxoak dira hurrengoak, liburuan sartu gabe utzi dituztenak eta GOIERRITARRi utzi dizkiontenak. Lehenengo biak, beraien euskarari idatziak dira.

Joxemigel eta Pilarren arteko solasak

- Aizan, jun al aiz kartan billa?
- Ez, pa bazkarie prantau bea et, eta geroxeago jungo naiz. Dana dala, gaur uste et bea etoiko dala, gauza asko darella aillautata.
- Ondo zeon, zeon zai neon da, jun-tzan Egoarritan Diputazioa bialdu netunan orri atzuk, ta argittaratzeako ikusi eñi nai zetunat, bestela baakiñ...
- A, ementxe a!
- I, Pilar, esaion sartzeko, emakomezko ori ezautzeko gogoaz bazeukenat-eta. Ta gaitheara, eskerrak eman bear tzonart gueatio artze ittun lanakatio.
- Ze berri zeok San Martin alde ortan?
- Antxe, jendea or daille bat eta beste, zeako zubie konpontzen ai die.
- Nun tzeok zubi ori?
- Zeon gizona, Urkuolatio gora gatozela, Baindin paren errekar bestaldetio badau bat etxe at, Barretxe da ue...
- Bai ori bazekiat. Gaitheara, oaiñ dala gutxi izin gaittuk Baindin. Norte-amerikako enbajadorea Israelen daona etoi oan. Markea dek baiño, Barandiaran Barandiaran oan. Pentsau zak, olako gizona eta be aurrekon aurrekon... etxeok sukalden be burue ikusi zonen, gizon arrek barrun sentittuko zona"



Jan-ohiturak eta eguneroko bizimodua

Bizimodu hau egin zuen Joxemigelek urte askotan Ataungo Sara etxean.

Jaiki: Goizeko 7-7,30etan. Urte askotan goizeko 6etan. Jantzi, garbitu, bere gelatik beheko solairura jaitsi ta otoitz egin.

8:00etan: Berriak entzun.

9:00etan: Meza auzoko Elizan.

Meza ematetik itzuli eta gosaldia.

Gosaria: Cola-Cao esnearekin. Sagarrezko mermelada, etxean egina.

Ondoren apaizaren otoitzak Breviarriotik eta hortik aurrera lanean ordubata arte.

Bazkaria: - Pura: porru, azelga, azenarioa eta patatak.

- Muinak edo ahuntz-haragia.
- Arraina, arrain zuria inoiz.
- Sagar mermelada.

Azukrea gozagarri nagusi. "Asko maitte du azukrea. Garai batean zera esaten zuten: mendian ibiltzeko karburanterik onena azukre koxkorra dela. Hura hartu eta txupatu".

Bazkalondoa: Erabateko deskantsua. "Ez dut ezer egiten. Lasai eseri eta telebistako berriak ikusi. Litekeena da lo-kuluxkaren bat egitea".

Ibilaldia: Azkeneko urteetan egiten zituen: "Gure etxetik herri-bidera joan eta etorri 5 itzuli. 100 metro daude juxtu etxetik bidera eta beraz 1.000 metro. Ibilaldi honetan, bi klasetako otoitzak egiten ditut: Responsoa, familian hildakoen alde eta bestea berri, nirekin San Gregorioko Eskolan izan ziren ikasle-lagunen alde. Denak hilda dira. Desastre gogorra da gero hori! 8 lagun ginen eta ni bakarrik bizirik".

Arratsaldean lanean: "Aitzin-solasak idatzi, argitaratu gabe dauzkadan lanak txukundu... Horrela aritzen naiz arratsaldean".

Merienda: "Gauza gutxi behar izaten dut. Baso bat esne. Lanean ari naizela hartzen dut".

Afaria: "Arraultzea uretan berotuta. Garai batean ez zen ohitura hori ezagutu ere egiten. Orduan arraultze-izerditua izaten zen. Arraultzea suaren aurrean jarri. Alderdi batetik izerdia lehenbizi ta gero bestetik. Orduan jan behar zen. Oso ona, zuringoa pixkabat lodituta. Santimamiñe koban ere horixe jaten nuen, harpearen ondoan".

Hurrena esnea eta gero sagar mermelada.

Ogirik ez: "Ez dut inoiz jaten. 25 urterekin ultzera heste-mehean eta ogia ez zela ona esan zidaten. Orain ez dut jateko gogorik ere".

Edaria: "Kas Limon eguerdian. Ardoa eta likorea inoiz ez. Ni naiz etxean, horiek edaten ikasi gabe gelditu naizen bakarra".

Afal-ondoa: "Eskutitzak irakurri eta erantzun. Tarterik baldin badut, lehengo lanei jarraitu. 8 terdiak aldera berriak entzun. 10ak arte aritzen naiz lanean".

22:00 - Lotara: "Aste eta jai bizimodu beretsua. Lehen 8 ordu egiten nuen lo-estudianteak bezala. Orain 10, majaderoren moduan, je, je, je...".

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1
☎ 943 88 51 68
ORMAIZTEGI

A HOLKULARITZA

GOENAGA

ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA: laborala, soziala, fiskala, merkantila, kontablea.
GESTORIA: ibilgailuak, garraioak, berrikuntzak, eskriturak.

**J. M. Iturrioz, 6
BEASAIN**

Eguberri zoriontsuak denoi!

☎ 943 16 00 65
Faxa: 943 16 03 59

Jon Mikel Murua: Nekazaritza eta Ingurugiro diputatua

Egun bakarra izan zuen Jon Mikel Murua ormaiztegiarrak Gipuzkoako Nekazaritza eta Ingurugiro diputatu kargua hartu ala ez erabakitzeko. Aspalditik nekazaritza eta batez ere basogintza arloan dabilena, Eusko Alkartasuna alderdiak bera proposatu zuen kargu honetarako. Ondo moldatu da lan berrian, sektorea gertutik ezagutzen baitzuen lehendik ere. Hori bai, zailtasunik handiena, Administrazioaren beraren funtzionamendua bera ikastea izan da. Nekazaritzari, basogintzari eta Aizkorri Parke Naturalari buruz hitz egin dugu batez ere diputatu jaunarekin.

Nekazaritza: "Gazte prestatuek badute etorkizuna nekazaritzan"

Gipuzkoako nekazaritza sektorea gertuagotik ikusteko aukera dauka Jon Mikel Muruak bere kargu berritik. Kanpotik ikusten zuen bezalaxe ikusten omen da barrutik ere. "Egoera ona ez da. Geroz eta gutxiago dira baserritik eskusiboki bizi direnak. Oso gazte gutxi gelditzen da baserrian. Zahartzen ari dira lanean ari direnak eta esplotazio asko eta asko etorkizunik gabeak dira, jarraipenik ez dutelako", dio. Era honetan, formazio egoki batekin, baserritarrak sektorean gelditzea eta kaletarrak sektorean sartzea lortu beharko litzateke aktibitate enpresarial bat sortuz.

Behin formazio ona edukita, etorkizun baikorra ikusten du. "Gaur egun badaude hainbat aktibitate edo produktu, oso salmenta onak dituztenak eta gai horietan produkzioa falta da. Esaterako, nekazaritza biologikoa falta da, gazta, baserriko oilaskoak... Barazgintzan bertako produktuek momentu honetan badute halako garrantzia bat. Bertako produktuek desberdindu egin behar dira gainontzekoetatik, besteek prezioetan konpetitzen dutelako. Kontsumitzaileek desberdintzen duen garaian, prest egoten da gehixeago ordaintzeko".



Jon Mikel Murua Uribe-Etxeberria

- ✓ 32 urte. Ormaiztegiarra.
- ✓ Ingeniari tekniko agronomoa.
- ✓ Goimeneko batzordean urte askoan egondakoa.
- ✓ Gipuzkoako Baso Elkarteko lehendakari 6 urtez.
- ✓ Euskadiko Baso Konfederazioko lehendakaria bi urtez.
- ✓ Hirugarren legegintzaldia Ormaiztegin Eusko Alkartasunako zinegotzi.

Nekazaritzaren berregituraketa egitea planteatzen du ormaiztegiarrak. "Baserriaren estereotipoa esne behiak eduki eta esnea produzitzea da. Esnea produktuko duten batzuk beharko dira, baina ez denak. Mundu osoan produzitzen den produktua da esnea eta hemen askotan baldintza txarragoetan. Hor ezin da konpetitu. Etorkizuna zein produktutan dagoen ikusi eta moldatu egin behar da. Gazte prestatuek badute etorkizuna nekazaritzan".


Europatik, Agenda 2000 planaren barruan, onurak etorriko direla aurrikusten du Nekazaritza eta Ingurugiro diputatuak. "2000-2006 urteko programa bat da 'Agenda 2000' eta hor diru-laguntzak izango dira. Sektore guztiak hartzen dituen diru-laguntzak izango dira: azpiegiturak (urak, argindarrak, bideak...), neurri nekazal ingurugiro (inguruari nola kasu egin), presa inguruetako uren gestioa, esplotazioen egokitze lanak (pabilioiak, makinariak...)..."

INIAUSTI
KARROZERIA



N-1 errepeidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA

Ives rothers
BEASAIN



PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
943 887 221
610 020 041

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Basogintza:

"Pinuari esker mantendu da Gipuzkoako baso lurra"

Basogintza arloa gertutik ezagutzen du Jon Mikel Muruak. Arlo honetan ere eskulan falta handia omen dago. Basoak helburu ekonomikoak baino ondorio gehiago ditu diputatuaren esanetan, "askotan baloratzen ez direnak. Basoak lurraldearen oreka mantentzen laguntzen du. Urte guztiko ura baldin badaukagu, basoengatik da neurri handi batean. Espainia aldera joanda, hemendik kilometro gutxira, erabat aldatzen da paisaia. Hori ez da kasualitatez. Zuhaitzak ebaki eta basamortu bihurtzen ari da. Gaur egun ez da errentagarria 35-40 urtera begirako inbertsioa egitea basoan eta jendeak ez du baloratzen basoak daukan eragina. Askotan gainera kontrako jarrera izaten da, pinua dela eta ez dela".

Pinuaren kontrako asko dago Euskal Herrian. Baina ormaiztegiarrak adierazi digunez, "hemen ez daude zuhaitz onak, txarrak edo erdipurdikoak. Espezie guztiak dira onak ondo gestionatzen badira. Teknikoki ez dago inongo dudarik, pagoa bezain ona dela intsinis pinua. Guk ditugun estereotipoak beste kontu bat da: jendeak nahiago du paga-

dian paseatu, pinudian baino. Mende honen hasieran Gipuzkoako basoen egoera oso kaskarra omen zen: untziolak, desamortizazioa, gaitzak... zirela eta. Neurri batzuk hartu ziren eta espezie berri batzuk azaldu ziren. Haiei esker, behintzat, mantendu egiten da Gipuzkoako baso lurra. Espezie horiek ez balira, Espainian bezalatsu izango ginen".

Hala ere Gipuzkoan oreka mantentzen omen da, nahiz eta intsinis pinuak portzentaia handia izan. "Biodibersitatea oso handia da Gipuzkoan. 500 metrotik behera bizi gara eta leku hori da intsinisarentzat lekuri egokiena. Hortik gora joanda, Aizkorri, Etxegarate, Ataun... aldean espeziak aldatu egiten dira portzentaia aldatu egiten dira. 500 metrotik behera %80a intsinis pinua baldin bada, hortik gora, alderantzizkoa da portzentaia", argitu digu.

Gipuzkoan % 60a basoa da. "Egur kontsumitzaile handiak gara eta gure inguruan ez dago egurrik. Europako mendi produktiboenetarikoak ditugu hemen eta etekin hori ateratzen segi behar dugu, irizpide egoki batzuekin gestionatuta", gaineratu du.



Aizkorriko Parke Naturala: "Sarrerak egun dauzkagunak izango dira"

Eusko Jaurlaritzak Aizkorri Parke Natural izendatua baldin badu ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak oraindik ez du gauza bera egin. Jendeak badu halako beldur bat izango dituen ondorioen inguruan. "Portzentaia handi batean Parke Naturalak jabeago pribatua da eta normalean da jendeak beldurra izatea. Gure helburua ez da Parke Naturala izatea posible egin duten haien aktibitateak murriztea, beraien aktibitateak behar den bezala egitea baizik. Gu gara lehenengo interesatuak, jende horrek beraien lanean jarraitzeko. Gaur egun Parke Naturalak, hor diren aktibitateei esker, batez ere artzantza eta ganaderitza, ditugu", esan du Jon Mikel Muruak.

Hainbat goierritarrek Parke Naturalaren sarrera

nagusia Otzaurtetik izan dadin nahi dute, behin eta berriaz **Goierritarra** aldizkarian azaldu izan den bezala. Parke Naturalen ardura duen diputatua aurrean izanda, ezin galdetu gabe gelditu. "Sarrerak gaur egun dauzkagunak izango dira. Gu ez goaz ezer berezirik egitera sarrera horietan. Ez daukat batere garbi interpretazio zentruak egin behar direnik. Parkeak hasiera batean izan behar du, inguru horietako herrietarako erakargarritasun bat, baina Administrazioak ez ditu zerbitzuak sarreretan jarri behar. Hori bertako herriarren lana da, beraiek jarri behar dituzte erakargarritasunak eta behar diren azpiegiturak aprobetxatzen jakin behar dute. Administrazioaren helburua Parke Naturala ongi gestionatzea da".

✓ Aholkularitza juridikoa
✓ Entrepresa zerbitzuak
✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN



EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

943 88 94 82

BEASAIN

U r t a r r i l a

9: Ordiziako PSE-EEko Jose Manuel Ros zinegotziaren aurkako erasoa izan zen. Udalak erasoa gaitzetsi eta salatzekeo bilkura isila egin zuen Ordizian.

15: apirilaren 23ra bitartean, Antzerki Garaia izan zen Ordizian eta Beasainen.

27-31: Goierri eskualdea Madrilgo turismo azokan (Fitur) izan zen.

29: Beasaingo Gizarte Ongizate sailak antolatuta, III. jardunaldiak izan ziren, 'Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka. GGD eta GLL laguntzak al dira erantzuna?' izenburupean.



10: Astotxo eguna ospatu zen Lazkaon. Egun berean Goierriko I. asto lehiaketa jokatu zen eta Pilar Belokik irabazi zuen.

30: Senideak elkarteak deituta, hausnarketa eguna izan zen Ataunen, Beasainen, Lazkaon, Ordizian eta Seguran.

31: Idiazabalgo XIX. Herri krosa jokatu zen. Irabazleak: benjaminetan Leire Murua eta Eñaut Insausti; alebinetan Eneritz Agirre eta Gorka Elustondo; infantiletan Miriam Arana eta Iñaki Jimenez; kadeteetan Maitane Etxeberria eta Xabier Jauregi; helduetan Elena Markotegi eta Mario Lopez; betaranoetan Arantxa Aldalur eta Ramon Rodriguez.

Iñautsi
HORTZ KLINIKA
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbk. KOLEGIATUA
RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK
JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28


LOPETEGI
AUTO ESKOLA
GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK
Igartetxe, 2 ☎ 943 88 21 74 BEASAIN
Oria Kalea, 14 ☎ 943 65 11 17 TOLOSA

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"

GOKINDEGA
GAURON

K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

URBITARTE
sagardotegia



- Eguerdi eta gauetan irekita
- Eguerdietan hobe aurrez deitzea

Erreserba telefonoa:
943 18 01 19
Ergoiena Auzoa ATAUN

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA



- ✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar
- ✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

IRUDI - Foto

☎ 943 888 100

San Inazio Kalea z/g BEASAIN



Ezkontza erreportaiak, jaunartzeak.
Estudioko argazkiak, argazkigintza komertziala
eta industrialia estudioan edo kanpoan.

Argazki materiala eta errebelatuak

Kalitate-prezio hoberena

**Eguberrietako kanpaina
berezia***
Argazki material guztian %5eko deskontua
12x17 kopiak 34 peztatik (BEZ barne)

* Ez da beste eskaintza batzuekin pilatzen



Alpe



SUKALDEAK

**SUKALDEKO ALTZARI
ETA
ELEKTRAGAILUAK**



Zatoz gure erakusketa ikustera!

- Ordenagailuz diseinatu eta geuk montatuko dugu zure sukaldea.
- Formika eta haritz zura kolore aukera handiarekin.
- 5 urteko garantia
- Elektragailuak

Salmenta eta
erakusketa


MARIARATZ, 4

☎ 943 88 86 84

BEASAIN



Foto IBILTARIA



13x19

**HAUXE DUZU
AUKERARIK
HOBERENA!**

13x19 neurriko argazkiak
10x15ekoen prezio berdinean

Kalitate hobe eta neurri
handiagoa

Denetan kopia indizea barne

GEMA M. ARRUGAETA

Argazkilari profesionala

Elkano, 8 (Asto Kale)

DAVID MONTERO ARRUGAETA

Bideo eta T.B.-n espezialdutako teknikaria

☎/faxa: 943 16 22 64

ORDIZIA



AINEA

ESTETIKA ZENTRUA

ILEAPAINDEGIA

Kolore eta itxura aldaketan espezialista

ESTETIZIENEA

Aurpegiko tratamenduak

TATOO ESTUDIOA

Diseinu pertsonalizatuak

BODY PIERCING

Zuri gehien gustatzen
zaizun lekuan

NEGUKO ESKAINTZA

Kolore aldaketa edo aurpegiko
azalaren garbiketa egiteagatik

OPARI

Masajea edo ile mozketa

Kale Nagusia 40
(tarteko oina)

BEASAIN

Tel: 943 88 91 44

O t s a i l a

2-7: Idiazabalen San Blas jaia ospatu ziren.

4: Ataungo Aitor Auzmendi alkatearen aurkako epaiketa izan zen Donostian, armada espainiarrari "laguntza ukatzearen" salaketapean.



4: Ordiziako AEK, Hitzaro, Euskal Herrian Euskaraz, Goierri Bertso-eskola eta



4: Santa Ageda eskean hainbat talde atera zen Goierriin, ohitura zaharrari eutsiz. Ataunen, ertaroko koplak zaharrak berreskuratu zituzten.

Goierritarrak Kultur Elkartek Ikasi-Makusi proiektua jarri zuten martxan. Egitasmo honen barruan, hainbat ekitaldi antolatu zen Ordizian.

5: Beasainen Loinazko San Martinen eguna ospatu zen.

6: Beasaingo La Salle ikastetxeak 90 urte bete zituen.

7: Euskadiko kros txapelketa jokatu zen Ezkio-Itsason. Kristina Petite eta Andres Perez izan ziren irabazleak.

14: Eskolarteko Loinazko San Martin krosa jokatu zen Beasainen.

28: 'Yartu' kultur elkar-
tea ofizialki martxan jarri zen Ezkio-Itsason.

28: Gabiria-Legazpia I. Rally sprinta jokatu zen.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Hautzaindegia-ludoteka
Zabalik urte osoan zehar:

- ✱ **Hautzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- ✱ **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- ✱ **Hautzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- ✱ **Kanguroak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

ARRIETA
Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu! **JATE TXEA**
☎ 943 88 00 02 **OLABERRIA**

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako ospakizunak

OSKARBI
OINETAKOAK
Dr. Alibi Marlens
Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.
KickKers
K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

Gaztelu
● Iturgintza
● Berogintza
Zorionak eta Urte Berri on!
Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
ZALDIBIA BEASAIN

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea
ANZIZAR, S.A.
Autoen salmenta
Mekanika eta elektrizitatea
Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

M a r t x o a



6: Juanito Dorronsoro ataundarra Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Oho-rezko Bazkide izendatu zu-ten, bertso doinuak biltzen egin duen lan handiarenga-tik.

8: Nazioarteko Emaku-mearen eguna ospatzeko hainbat ekitaldi izan zen Goierriin.

8-14: Kultur astea izan zen Olaberrian.

8-14: Seguran Iparra-Hegoa astea ospatu zen, Elo-rri Elkartek eta Urruñako Hazia elkarteak antolatuturik.

9: Segura Irratia 24 orduz emititzen hasi zen.

10: Itsasondoko Kandi-do Sagarzazu atxilotu eta kartzelan sartu zuten. Gaur egun libre dago.

12: Ordiziako PSE-EE-ko zinegotzia zen Juan Ma-nuel Rosek beste eraso bat izan zuen. 15ean bilkura ixi-la egin zen Ordizian. 25ean, dimititu egin zuen.

13-21: 'Zaharra' eta 'Pototo'ri omenaldia egin zioten Zaldibian.

16: Jose Zufiaurrek 'Be-asaingo mendiak eta errekek' liburua aurkeztu zuen.

17-20: Idiazabal, Zegama eta Segurako Jarrai-ko gazte erakundeak antola-turik, III. Topagunea egin zu-ten.

22-24: 'Ondarea eta turismoaren garrantzia landa garapenean' jardunal-diak izan ziren Zerainen. Eu-



24: XI. Korrika pasatu zen Goierritik. 47 kilometro ze-harkatu zituen. Pedro Migel Etxenike zientzilariari omenal-dia egin zioten Ordizian.

ropako Feder fondoetako Re-veil proiektuaren barruan an-tolatu ziren jardunaldiak eta atzerriko aditu ugari izan zi-ren bertan.

27: III. Akordeoi jaial-dia izan zen Ordizian. Urru-ñako Philippe Ezkurak ira-bazi zuen.

27: Ormaiztegin 'Denak etxerantz', presoen eskubi-deen aldeko plataforma sortu zen.

27-28: Auresku eta Doinu Zahar txapelketak jokatu ziren Beasainen. Doi-nu Zaharren atalean Ariane Tokerok eta Eider Mujikak irabazi zuten. Aureskuan Ekaitz Perezek eta Ibon Huartek.

28: Itsasondoko Jose Otegi atabalaria eta Nikolas Iturrioz txistularia omendu zituzten, 50 urtean atabala eta txistua jotzen egindako lanagatik.

MUGAR
Argiztapenak



URTE BERRI ON!

Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998

**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZO TRATAMENDUA**

R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.

Eskatu ordua: ☎ 629 45 20 53 - 943 88 92 22

Andra Mari, 13 behea ezk. - BEASAIN

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa

IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



A p r i l a



7: Artzain eguna ospatu zen Ordiziako asteazkeneko azokan. Idiazabal Gaztaren denboraldi berria ofizialki hasiteko, Karlos Argiñano beasaingar sukaldariak, gazta ebaki zuen.

12: Egun honetan hasita, Alzheimer gaixoen senditar-tekoen jardunaldiak izan ziren Ordizian.

24: XXVIII. Osinalde bertso txapelketa jokatu zen Gabirian, kultur astearen barruan. Arkaitz Goikoetxea oiartzuarrak irabazi zuen.

15: Lizarra-Garazi akordioa gizarteratzeko helburuarekin 'Sinatzaileen Beasaingo komisioa' aurkeztu zen.

25: Gipuzkoako odol-emaileen 34. biltzarra ospatu zen Beasaingo Antzizar kiroldegian.

17: Sasieta Mankomunitateak edukinontzi horia bultzatzeko sensibilizazio kanpaina hasi zuen, Behi Bi's antzerki taldearekin elkarlanean.

30: Egun honetan hasi eta maiatzaren 2ra bitartean, Olaberriako Iurre auzoko jaiak ospatu ziren.

23-30: Lazkaoko San Prudentzio jaiak ospatu ziren.

30: Beasaingo Indar enpresak instalazio berriaren lehen harria jarri zuen.

1-4: Aste Santuko ekitaldi eta prozesioak ospatu ziren Seguran.

7: Olaberriako Gizarte Etxearen 4. urteurrena ospatu zuten.

4: Aberri Egun bateratuak ospatu ziren Goierriko hainbat herritan.

12: Lizarra-Garazi itunak deituta 'Bakea eraikitzen, Euskal Herriak du hitza' lelopean ordu beteko lanuztea eta bilkurak egin ziren.

5: Zaldibian Saturdiko festa ospatu zen.



**ZEGAMA
OKINDEGIA**

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi, Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan, Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda, Arrondo.

Segurako Erosle, **Idiazabalgo** Ahizpak eta **Ormaiztegi**ko Iñaki Erosle.

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

*Edergintza eta ileapaindegi
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**

ARRANO TABERNA

Pintxo eta ogitartekoak



*Eguberrietan ere preso eta
iheslariak gogoan*

Nagusia, 12
BEASAIN

LIBURU AZOKA BEASAINEN

**DISKO
BIDEO
JOKU**

NOIZ: Abenduaren 14tik 23ra zabalik (biak barne)

NON: Kale Nagusia, 32 **BEASAIN**

ORDUTEGIA: Egunero asteburuak barne, arratsaldeko 5etatik 8etara. Astearte eta larunbatetan goizez ere bai 10etatik 13 etara.

LAGUNTZAILEA: Udaleko Euskara Batzordea

ANTOLATZAILEA: GOIZTIRI



M a i a t z a

1: II. Aralarko eguna ospatu zen. Aralarko larreak ireki ziren ofizialki.

2: II. Idiazabal Gaztaren eguna ospatu zuten Idiazabalen.

2: Seguran jokaturako bi-kotekako Gipuzkoako bola txapelketan Martxeliño Agirre eta Jokin Izagirre izan ziren irabazleak.

3-9: Kultur astea ospatu zen Itsasondan.

4: Beasaingo Udalak hitzarmena sinatu zuen Eusko Ikaskuntzarekin, erakunde honek eratzen dituen ekintzei bideragarritasuna emateko helburuarekin.

5: Nikaraguako Esteliko alkatea Beasainen izan zen. Beasainek Esteliri diru-laguntza bidali dio Mith hura-karanaren ondorenak konpontzen laguntzeko.

7: 'Zaharkinak' erakusketak ikusgai egon zen ekainaren 13ra bitartean, Ezkio-Itsasoko kultur etxean. Herriko baserriko tresna zaharrek osatu zuten erakusketak.



21: Lizarrustiko Parketxea ofizialki inauguratu zuten agintariek. Uztailaren 4an ireki zizkion ateak bisitariei.

7: Joxemiel Barandiaran eta euskal mitologiari buruzko 'Lehenaren eta geroaren zubia' diaporama aurkeztu zen Ataungo udaletxean.

8-9: Ertaroko azoka izan zen Ordizian.

8-9: Lazkaomendiko jaiak ospatu ziren.

12-16: Legorretako jaiak ospatu ziren.

14: 'Kablea Ataunen' liburua aurkeztu zuen Lourdes Altuna ataundarrak.

14-23: Beasaingo Loinatz jaiak ospatu ziren.

15: San Isidro eguneko

ospakizunak ospatu ziren Goierriko hainbat herritan.

16: Altzagarateko jaiak ospatu ziren egun honetan.

20: Sasieta sariak banatu ziren Beasainen. Kartel lehiaketa Beasaingo Andramendi ikastolakoek irabazi zuten Lehen Hezkuntzako azkeneko urtekoen artean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako artean, Urretxu-Zumarragako ikastolakoek. Jostailu lehiaketa, Zumarragako La Salle-Legazpi ikastetxeak irabazi zuen.

21: Greba orokor deialdia izan zen sindikatu gehienek deituta.

22: Beasainen Euskadiko motokros txapelketako lehen saioa jokatu zen.

23-24: Zegamarrak erromesaldia egin zuten Arantzazura.

25: Etxegarateko bi-koizketa lanen hasiera adierazten zuen lehenengo harria jarri zuten Roman Sudupe.

26: Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak 10 urte bete zituen. Museoak egokitu eta urteurreneko egun horretan inauguratu zuten.

26: Aralarko artzainak txabola berrien eta bideen eske agertu ziren Donostian emandako prentsaurrean.

28: Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketan Goierriko taldeak izan zen irabazle. Taldekideak: Hartz Aierbe, Aitzol Munduate, Iban Urdangarin eta Oier Zurutuza ataundarrak.

29: Ordiziako Jakintza dantza taldeak jaialdi berezia estreinatu zuen, betiko dantzak musika berriarekin uztartuz.

30: San Adrianen erromeria izan zuten idiazabalarrak.



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

Ekaina



8: Ordiziako Kutzak Abardia etxe berrituan ireki zituen ateak.

10: Mikel Zumarraga Ormaiztegiko presoak libre gelditu zen. 12 urte egin zituen kartzelan.

keta jokatu zen Seguran. Kimetz Larrañaga eta Eneritz Epelde izan ziren irabazleak.

21: Etxegarateko bikoizketaren aldeko plataforma desegin egin zen.

23-27: Olaberrian San Joan jaiak ospatu zituzten.

25: Presoak Euskal Herriaritzea gauzatzeko konpromisoak hartu behar direla aldarrikatzeko hainbat ekitaldi egin zen, Senideak elkarrekin eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolatuta.

12: Ordiziako Kimetz emakume taldeak antolatutako ipuin lehiaketaren sari-banaketa egin zen. Euskarazko atalean Ikaztegiak Maialen Zubeldia izan zen irabazle eta gaztelerazkoan, Donostiako Juan Gonzalez.

18-23: Ordiziako Otegi-enea auzoko jaiak ospatu ziren.

18-26: San Joan jaiak ospatu ziren Seguran.

19-20: Euskal Herriko dantza askatuko txapel-

25-26: Citroen Bi Zaldi autoen bilkura egin zen Zerainen.

5: 'Bada garaia' presoaren eskubideen aldeko plataforma aurkeztu zen Beasainen.

5: Korpus eguna ospatu zuten Legorretan.

5: Ordiziako Urdaneta-Oianguren eskola publikoak 25. urteurrena ospatu zuen. Lehengoak eta oraingoak elkartu ziren.

13: Udal hauteskundeak izan ziren. Goierriko herri bakoitzean alkate hauek ditugu agintean:

Altzaga: Imanol Mujika (Independentea)
Arama: Maria Jose Olazabal (Independentea)
Ataun: Aitor Auzmendi (Independentea)
Beasain: Jon Jauregi (EAJ-EA)
Ezkio-Itsaso: Iñaki Idiakez (EH)
Gabiria: Xabier Murua (Independentea)
Idiazabal: Antton Irizar (EA)
Itsasondo: Jose Mari Otegi (EH)
Lazkao: Felix Urkola (EAJ-EA)
Legorreta: Xabier Iraola (EAJ-EA)
Mutiloa: M. Angeles Telleria (Independentea)
Olaberria: Txomin Mendoza (Independentea)
Ordizia: Alejandra Iturrioz (EAJ-EA)
Ormaiztegi: Iñaki Maiora (EAJ-EA)
Segura: Luis Maria Telleria (EH)
Zaldibia: Joakin Zubeldia (EH)
Zegama: Juan Inazio Galdos (EA-EAJ)
Zerain: Andoni Alustiza (Independentea)



25: Miguel de la Cuadra Salcedok antolatutako 'Ruta Quetzal Argentaria' Goierriera etorri zen, barrualdeko Santiagobideari buruz zerbait gehiago ikasteko helburuarekin.



X ENKEGI
 ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurrira

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
 Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

BEASAIN



U z t a i l a

2-3: Beasaingo Arriarango San Pedro jaiak ospatu ziren.

2-4: San Pedro jaiak ospatu ziren Mutiloan.

2-4: Santa Ixabel jaiak ospatu zituzten Ataungo Aian.

3: Udal berriak osatu ziren.

3: Ordiziako Izurri Berria musika taldeak lehen diskoa kaleratu zuen.

4: Zaldibiako On Antonio Garmendia apaizak urrezko ezteiak ospatu zituen.

4: Ordiziako Idiazabal Gaztaren kofradiak X. kapitulua ospatu zuen.

7: Segurako saihesbidea inauguratu zen.

8: Beasainen Eguneko zentrua martxan jarri zen.

15: Igartzako monumentu multzoaren dokumentu historikoen inbentarioa aurkeztu zuten Beasainen.



23: Idiazabalgo Aizkorreta futbol-zelaia inauguratu zen. Errealak eta Eibarrek jokatu zuten adiskidantzazko partidua.



16: Ainitze Gorospe ordiziar mendizaleak Muztang-ata 7.546 metroko mendia igo zuen Txinan.

16-27: Ordiziako Santa Ana jaiak ospatu ziren.

17: Zaldibiako Txamarretzeko jaiak ospatu ziren.

20: HBko Mahai Nazionalako kide den Juan Mari Olano gaintzarra, kartzelatik atera zen, 19 hilabete kartzelan egin ondoren.

25: Gabiriako Alkaingo eliza eraberritua inauguratu zen.

28: Pedro Garcia mendizale ordiziarrek 7.439 metroko Pobeda mendia igo zuen Kazajistanen.

Abendua

7: Ordiziako Erga Omnes musika taldeak Donostia Hiria Pop-rock lehiaketa irabazi zuen.

13-16: Itsasondoko Andra Mari jaiak ospatu ziren.

14-16: Zerainen Andra Mari jaiak izan ziren.

13-15: Gabirian herriko jaiak ospatu zituzten.

14: Gipuzkoako 1950. urtearen aurretiko autoen erakusketa egin zen Zerainen.

15: Zaldibiako segalariak Eslovenian izan ziren Europako sega txapelketan. Emakumeetan Izaskun Larrarte ibartarra izan zen irabazle.

23-29: Zegaman San Bartolome jaiak ospatu ziren.



• Pintxoak aukeran

• Ogizartekoak

Zorionak eta Urte Berri on!

Legazpi kalea, 3 **ORDIZIA**

GESTORIA BIKO

ASEGUROAK

- ✖ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✖ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12


ORDIZIA



**OINETAKOAK
OSAGARRIAK**

J. M. Barandiaran Pl., 3
© 943 88 61 77 ORDIZIA

*Zorionak eta
Urte Berri on!*



CAMPER



patricia



wonders

GUESS?

Pepe Jeans
LONDON

MUNDUATE ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

**Olentzero eta Erregeetako
opari berezia**

**Aukera zabala erloju eta
bitxietan**

**Azken nobedadeak
prezio-kalitate erlazio
hoberenarekin**

Erregeak arte
larunbat arratsaldeetan
zabalik

1883 URTEAN SORTUTAKO ETXEA

© 943 88 12 72

Kale Nagusia, 1-2

ORDIZIA





Ordiziako Tabernarien Elkartea

*Eguberri zoriontsuak
eta Urte Berri on!*

OIANGU
TABERNA
❖ ❖ ❖

ETXETXO
TABERNA



KOIOTE
PUB

Kixket
Taberna-Kafetegia




TXIMISTA
Sagardotegia



MIAMI
kafetegia


MARTINEZ
JATETXEA



ALDASORO
Taberna - Jatetxea

LA GRANJA
TABERNA



OLANO
TABERNA

I r a i l a

3-12: Euskal jaiak ospatu ziren Ordizian.

3-5: Ataun San Gregorion festak ospatu zituzten.

3-5: Beasaingo Igartza auzoko jaiak ospatu ziren.

4: Iaz Mexikoko Munduko pelota txapelketan gomazko pilotaz jokaturako pala txapelketan Maite Ruiz Mujika (Beasainen jaioa eta Eulaten bizi dena) txapeldun izan zen. Egun honetan omenaldia egin zitzaion Beasainen.

5: Beasainmendiko jaiak ospatu ziren.

5: Arantzazura erromesaldia egin zuten Idiazabal, Zerain, Mutilo eta Segurakoek.

5-12: Lierniko festak izan ziren.

8: Ordiziako azoka berezia ospatu zen. Gazta txapelketa Legazpiko Arantxa Segurolak irabazi zuen eta gazta erdiagatik 600.000 pezeta ordaindu zituen Donostiako hipermerkatu batek.

9: Jexux Jauregi eskulturgileak 'Ilargiaren bidea' izeneko eskultura inauguratu zuen Zeraingo San Blas ermitan.

10: Xabier Etxeberria zarauztarrak irabazi du II. Igartza Literatur Sorkuntzako beka. Beasaingo Udalak, Elkarlanean argitaletxeak eta CAF enpresak antolatzen dute beka.



21: Udalbitzaren Batzorde Iraunkorraren lehen bilera Beasaingo Udaletxean egin zen.

11: Zaldibitar dantzari, kantari eta trikitilari talde bat Katalunian izan zen, Diada eguna zela eta.

11-19: Kultur astea ospatu zen Zerainen.

12: Altzania Partzoneriko ehiz postuen subasta egin zen Seguran. Agiñarango 5. postua izan zen garestiena; 1.044.400 pezeta ordaindu zituzten.

12: VIII. Lazkao Txiki bertsopaper txapelketako sari-banaketa egin zen. Irabazleak: helduetan Nikolas Zendoia, gazteetan Beasaingo Irati Goikoetxea, eta gazte-txoetan Ataungo Oier Zurutza.

17: Lazkaoko San Benito ikastolako haurtzandegia inauguratu zen.

17: Gabiriako Goruntz dantza taldekoak Bartzelonan izan ziren.

18: Udalbiltza osatu zen Bilbon eta Beasaingo alkatea den Jon Jauregi (EAJ) da bozeramalea.

18: Santiago bidea Euskal Herrian ikastaroa hasi zen Zegaman.

18-19: Banakako herrien proiektuaren barruan, Seguran, Zegaman eta Zerainen hainbat ekitaldi ospatu ziren, herriak ezagutzera ematearen eta turismoa erakartzearen helburuekin.

19: V. Gipuzkoako nekazaritza biologikoaren azoka ospatu zen Zerainen.

19: Alzheimer gaixotasunaren eguna ospatu zuten Ordizian.

22: Ataungo Inaxio Aierbe euskal errefuxiatu politikoa Atauna itzuli zen, bere osasun egoera larritu ondoren.

24: Lazkao Txikiren bertso antologia aurkeztu zuen Xabier Amuriza bertso-

lariak Lazkaomendin. Batbateko ehun bertsoz osatua dago 'Lazkao Txiki, batbateko sorgina' antologia.

24-26: Beasaingo Bideluzeko festak berreskuratu zituzten.

25-26: San Migel festa ospakizunak izan zituzten Ormaiztegin.

25-29: Altzagan San Migel jaiak ospatu zituzten. 26an eliza berria inauguratu zuten.

26: Ataungo ibilaldi neurtua jokatu zen.

26: Beasaingo Laiskabar auzoak bere festa eguna ospatu zuen.

26: Gabiriarrek erromesaldia egin zuten Arantzazura.

26: Zegaman VI. Kantu festa ospatu zuten Orkatz abesbatzaren eskutik.

28: Agauntza errekan arrainak hilik azaldu ziren.

29: Lazkaoko Kultur Etxea inauguratu zen.

29: San Migel eguna ospatu zen hainbat herritan. Gaintzan, Altzagan, Lazkaon eta Idiazabalgo Urtsuaren auzoan besteak beste.

29: Joxe Ramon Agirre 'Marron' mendizale ataundarrak 'Ene erraietara' diaporama aurkeztu zuen Donostian.

U r r i a

5-11: Santa Fe jaiak ospatu ziren Zaldibian.

8: Tomas Zumalakarregi Ormaiztegiko jeneral karlistaren biografia aurkeztu zuen Mikel Alberdik. Zumalakarregi museoko artxibalaria da Alberdi.

9: Ordiziako Lizarra-Garazi foroaren aurkezpena egin zen.

9: Orkli kooperatibak bere instalazio berriak inauguratu zituen. Aldi berean, 25. urteurreneko ospakizunak izan zituzten.

11: Ordiziako Correosen eta Iberdrolan erasoak izan ziren. Herriko Udalak salatu egin zituen eraso hauek.

16-17: Gipuzkoako artisauen II. azoka ospatu zen Ordizian.

20: Imuntzo eta Beloki taldeak 'Lousianara noa' diskoa kaleratu zuen.

21: Jon Urrujolegi segurarrak 'Sinonimoen kutxa' hiztegia kaleratu zuen.

22: Goierriko antzerki amateurren II. zirkuitua abian jarri zen. Beasaingo Errail antzerki taldea 'Sukaldea' lana aurkeztu aritu da Goierriko herri ezberdinetan eta Ordiziako Urrup taldea, 'Autoa' lana.

23: Lazkaoko I. Gazte eguna ospatu zen.

25: Belen Gonzalez lazkaotarra atxilotu zuen Frantziako Poliziak Pauen. Madrilgo Gobernuarekin ETAK izandako elkarriketarako partaideetarikoa bat izan zela esaten da. Lazkaon manifestazioak izan ziren Belenen askatasuna eskatzeko.



25: Jesus Aranburu Idiazabalgo gaztagileak irabazi zuen Gernikako azken asteleheneko gazta txapelketa.

25-31: Kultur astea ospatu zuten Legorretan.

26: Olaberriako Aceraliak lantegi berria inauguratu zuen.

27: Jokin Aldanondo preso libre gelditu zen.

31: Ardiki eguna ospatu zuten Zaldibian. VI. Mondeju lehiaketa Orendaingo Garmendia anaiek irabazi zuten. V. Aralarko gazta txapelketa berri, Ignazio Irastorza 'Katxinek'. Egun berean, 'Katxine' Euskal Herriko gazta txapeldun izan zen Gasteizen.

29: Goierritarrak 10. urteurrena zuela eta, itxuraldaturik kaleratu zen.

29: Beasainen Udazken kulturala hasi zen eta azaroaren 14ra bitartean iraun zuen.

31: XII. Orixe bertsopaper lehiaketan goierritarrak nagusi: 14 urte bitartekoetan Beasaingo Irati Goikoetxea; 21 urtez azpikoetan Beasaingo Ekaitz Goikoetxea eta helduetan Ordiziako Alaitz Sarasola.



Eguberri on! **Xikel**

NEVES
BANATZAILEA

ARMAIRU
ENPOTRATUAK
NEURRIRA

Urdaneta, 41 ☎ 943 16 16 06

ORDIZIA

Gabon zoriontsuak!

ASTI

Zaldizurreta kalea
☎ 943 88 45 06 **BEASAIN**

Auto EASO

ibabe industrialdea, 13
LAZKAO

☎ 943 16 30 15
☎ 606 301 955

Oiarbide

Oinetakoak
Eguberri zoriontsuak denoi!

Laskurain, 12 ☎ 943 65 37 86
TOLOSA

San Inazio, 14 ☎ 943 16 04 34
BEASAIN

A z a r o a



2: Lazkaoko Udalak deituta (EAJ-EA-EH) manifestazioa izan zen Lazkaon, Belen Gonzalez herritarraren atxiloketa gaitzetsi eta atxiloketa honek Euskal Herriko normalkuntza politikorako bidea ez duela inolaz ere bultzatzen salatuz.

7: Bach musikaldiaren kontzertua izan zen Ataun San Martingo elizan.

7: Telleria abizena dutenek bazkaria izan zuten egun horretan.

10-14: San Martin jaiak ospatu zituzten Araman.

11-14: Ataun San Martingo jaiak ospatu ziren.

12: 'Burdinaren bideak' turismo proiektua aurkeztu zuten Zerain, Legazpi eta Ormaiztegi udalek. Burdinaren prozesu osoa biltzen da pakete turistiko horretan.

12: Xabier Mendiguren Elizegi beasaindarrak 'Nerearen biluzia' liburua aurkeztu zuen.

12-13: Beasaingo Gazta Asanbladak 6. urteurrena ospatu zuen.

13: San Martin azoka ospatu zuten zegamarrek. Aurtun Urbia eta Aizkorriko I. gazta txapelketa jokatu zen eta Etxezarretak irabazi zuen.

13: Beasaingo XV. Odolki lehiaketa jokatu zen. Beasaingo Olano harategiko Ixabel Imazek irabazi zuen.

14: Jentilen etorrera antzeztu zuten Ataunen.

15-21: Ardoaren astea izan zen Ordizian.

15-21: Mendi astea izan zuten ormaiztegiarrek.

16-22: Legorretako Ugara herri ikastetxeko 5. eta 6. mailako 15 ikasle Aragoien izan ziren.

19: Esklusioaren aurka eta karta sozialaren aldeko martxan Goierriara heldu zen.

20: Beasaingo Ezkiaga Auzo Etxearen 6. urteurrena ospatu zuten.

20: Mendeburua kantuz kantu jaialdia izan zen Ordizian, Goierriko ikastolek antolatuta, Iparraldeko Urruñako ikastola diruz laguntzeko helburuarekin.

20: Antton Garcia del Molino presoaren askatasuna eskatzeko bilkura egin zen Ordizian. Gaixorik dago ordiziarra eta zigorraren hiru laurdena betea dauka. Une honetan Basauriko kartzelan dago preso.

20-30: Ander Deurenaren festak ospatu ziren Ormaiztegin.

21: Gabiriako IV. erretil sagar lehiaketa jokatu zen. Agerre-berriko Maria Etxezarretak irabazi zuen lehiaketa.

21: Ataungo Hiru Auzotako XX. Korrikaldia jokatu zen. Irabazleak: helduetan Jose Javier Cuadrado, emakumezkoetan Elena Gomez.

24-28: Euskal Herrian Euskarazen 20. urteurreneko ospakizunak izan ziren Ordizian.

27: Fantasiako eta bel-durrezko filmeen zikloa izan zen Ordizian.

27-28: Idiazabalen, hildako Eduardo eta Iparrari omenaldia eskaini zioten.

28: Gaintzan Udal hauteskundeak ospatu ziren, ekainaren 13an zerrendarik ez baitzen aurkeztu. J.M. Matxain izango da alkate daitozen lau urteetan.

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 ☎ 943 88 35 81
BEASAIN

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Zorionak eta Urte Berri on!

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA



Oroitz Maiz irabazle Arrasateko XX. akordeoi lehiaketan



Oroitz Maiz 1983. urtean jaio zen Gabirian eta 16 urte besterik ez baditu ere sari denezte lortu ditu jadanik akordeoi lehiaketetan. Azkenea joan zen abenduaren 5ean eta 6an Arrasaten burutu zen lehiaketan lortu zuen, Junior mailan, Estatuko onenen artean lehiatu ondoren. Saria honako hau izan zuen: 60.000 pezeta, txapela, trofeoa eta diploma.

- Noiz hasi zinen akordeoi ikasketak burutzen?

- 1991ko irailean hasi nintzen Ormaiztegiako 'Txindata' musika eskolan. Handik bost urtera Iruna joan nintzen. Gaur egun bertan dihardut akordeoi ikasketak buru-

tzen Karlos Iturralde irakaslearekin.

- Garrantzitsua al da Arrasateko lehiaketa?

- Bai, oso garrantzitsua. Ospe handia du eta ez hemen bakarrik, nazioartean ere bai eta bertako partaideen maila altua da oso. Epaimahaia ere Europako akordeoi irakasle garrantzitsuenek osatzen dute.

- Lehenengo saria lortu duzu aurten, pozez gainezka, ezta?

- Bai, izugarrizko poza eman dit eta orain arte egin dudana lanaren emaitza ikusteko balio izan dit. Horrelako sariek eguneroko lan gogorrean ilusio gehiagorekin jarraitzeko

balio izaten dute. Lehiaketa iristen denean gainera nerbioak kontrolatzen jakin behar duzu.

- Gerora begira zer-nolako asmoak dituzu?

- Akordeoiarekin jarraitzeko asmoa dut. Gauzak ongi badoaz maiatzean Alemaniako 'International Akkordeon Wettbewerbes Klingenthal' lehiaketan parte hartzeko asmoa dut. Abuztuan, berriz, Irungo Txanpa akordeoi orkestrarekin Danimarkara jo-

ango naiz zenbait kontzertu eskaintzera.

Arrasatera joan ez ziren herritarrek abenduaren 18an, Oroitzek herriko elizan arratsaldeko 8etan eskainiko duen akordeoi saioa entzuteko aukera izango dute.

Gabino Murua

Herriko eskolaumeen antzerki saioa

Abenduaren 18an, arratsaldeko 4etan herriko eskolaumeek antzerki saioa antzeztuko sute parroki antzokian, eta ondoren, bostak aldera edo txistor-jana izango da Erbie elkartearen.

Garbitasunak
OXEPI
☎ 943 88 96 67 ZALDIBIA

GUREA
JANARIAK
GAZTAK
BABARRUNAK
ARRAUTZAK
☎ 943 80 17 58
☎ 619 40 95 66
Atiber etxea
MUTILOA

LIVZ, S.L.
- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiaraztea
- Altzarigintza industrialak
- Bulego altzariak
☎ 943 88 77 90 Mallotz, 25. pab.
Faxa: 943 88 82 67 ORDIZIA

Umeen arropa denda
Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!
☎ 943 16 12 39
Santa Maria, 13
ORDIZIA

YARZABAL, S.L.
Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA
Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

INPRIMATEGIA
URDANETA
KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ
Gabon zoriontsuak!
Urdaneta, 26 ☎ 943 88 04 46 Faxa: 943 16 14 07 ORDIZIA

Egitarau zabala Eguberrietarako

Zubi luzea pasa eta gero oporraldiak datoz berriro ere (eskolako ikasleentzat behintzat bai). Gabonak edo Eguberriak bertantxe ditugu (herri guztian zehar dauden apaingarriak ikusi besterik ez dago) eta hau dela eta egitarau oparoa prestatu du Udalak. Era laburrean bada ere, jarraian urte bukaera eta urte haseran zer ikusi eta egiteko aukera izango duzun:

Abenduak 18

Larunbatean txotxongiloak izango ditugu ikusgai Udal Liburutegian. Behi Bi's taldeak 'Txakur beltz handi eta iletsua' obra eskainiko du goizeko 11etan. Arratsaldeko 6,30etatik aurrera, berriz, Irriki Elkarateak antolatuta Santo Tomas eguna ospatuko dute herriko haurrek Enparantza Nagusian. Haur jolasak, talo postuak, gaztainak, txistulariak, bertsolariak eta trikitixa ere ez dira faltako. Eguna amaitzeko, iluntzeko 8etan Santa Ana txiki eta Santa Ana abesbatzek eguberri kontzertua emango dute elizan.

Gabon eguna

Olentzeroren bisita jasoko dugu. Arratsaldeko 6,30etan egingo du irteera Olentzerok Garagartza Plazatik eta herri-ohiko ibilbidea egin ondoren Enparantza Nagusira iritsiko da. Bertan, ume eta haur guztiak zain izango ditu. Dantzariak ere ez dira faltako. Goxokiak, gaztainak, Olentzeroren bertsoa, gurdia... eta, noski, sariak.

Abenduak 29

Eguberrietako aparteko peria izango da. Bertan, ohiko postuez gain, ez dira faltako kapoi, indioilar eta antzarren erakusketa, Euskal Herriko erretil sagarren lehiaketa, fruitu lehiaketa, fuitu lehoreen erakusketa eta ardi latxa eta aharien erakusketa, ostruka eta orein erakusketa eta iazkoari jarraituz Gipuzkoako odolki txapelketa Beti Alai pilotalekuan. Hau guztia goiz partean izango bada ere, arratsaldean XVII. Eguberriko Aldundiko Nazioarteko Sari Nagusia izango da Majori kiroldegiko igerileku estalian. Aurtengoan ere, inguruko igerilari onenez gain, kanpotik ere etorriko da

LABURREAN

Erakusketak Barrenan

Abenduaren 21etik urtarrilaren 9ra bitartean Kutxak antolatutako "Miramon Zientziaren kutxagunea" erakusketa izango da ikusgai, abenduaren 18tik 26ra bitartean Goiztiri AEK-antolatutako postal eta idazlanen lehiaketako lanak eta abenduaren 27tik urtarrilaren 9a bitartean Medicus Mundik antolatutako "Movimiento sin tierra". Denak Barrenan izango dira.

Sutea tximinian

Ikuskizun bikaina ikusi ahal izan genuen joaneko igandean (abenduaren 5ean) Kale Nagusian. Izan ere, Amonane Pubaren gainean, bigarren solairuan, tximiniak su hartu eta suhiltzaileek etorri behar izan zuten sua itzaltzera. Ordu pare bat pasa zituzten eta azkenean sua mendean hartu zuten. Igandea izaki, jende mordoa hurbildu zen zer gertatuko ote zen ikustera.

San Juan auzoa

Urtea hastearekin batera San Juan auzoko etxebizitza berriak eraikitzen hasiko dira. Guztira 27 etxebizitza izango dira eta bi urte barru amaituta egongo direla espero da.

hainbat izen handidun igerilari.

Abenduak 31

Urtea amaitzeko San Silbestre proba ere hor izango da. Proba herrikoia izango da, gaztetxoenetatik hasita helduenetara. Azken hauek iluntzeko 7ak aldera izango dute irteera udaletxe aurrean. Ibilbidea ohikoa izango da, herriko hainbat auzo igaroz.

Urtarrilak 1

Eta urtea korrika amaituko badugu, 2000 urtea bertsotan hasiko dugu. Herri Antzokian izango da zita, arratsaldeko 6etan, eta bertan Gipuzkoako herri arteko txapelketan finalistak izandako bi taldeak arituko dira. Erniope aldetik Jesus Mari Irazu, Amaia Agirre eta Txo-

min garmendia arituko diren bitartean Zarautz Jai Txiki aldetik Andoni Egaña, Julen Zulaika eta Iñigo Manzisidor 'Mantxi' arituko dira. Aurrekoetan bezala, aipatu bertso jaialdia Euskaldunon Egunkariaren aldekoa izango da.

Urtarrilak 2

Igandean haurren txanda iritsiko da. Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoek euren ikuskizun berria eskainiko dute arratsaldeko 5,30etatik aurrera Majori Kiroldegian. Sarrerak eskuratu nahi dituenak Barrena Jauregira hurbildu besterik ez du. Gabonetako egutegiarekin amaitzeko, urtarrilaren 5ean erregeen kabalgata egingo da.

Aitor Calvillo



**ORDIZIA
BIDEO
KLUBA**

© 943 88 79 19

Domingo Unanue, 1 ORDIZIA

Gabon jai zoriontsuak pasa ditzazuela!



HIDALGO

Bitxitegia - Erlojutegia - Opariak

Legazpi Kalea, 3 943 88 04 06 ORDIZIA

Diseinua

Berrikuntzak

Kalitatea

Garantia

Olentzerori ongi etorria

Abenduaren 24an, Olentzero izango da protagonista Olaberrian ere. Goizean gazte-txoek ibiliko dira kantuan, 13 urtetik gorakoak arratsaldean. Arratsaldeko 6etan dena den, elkarrekin, ikuskizun berezia egingo dute, Olentzeroa eta Gabonetako enborra oinarri hartuta, soinu eta abestiz alaiturik.

Mitologia oinarri izanik beraz, Olentzerori ongi etorria eman eta gabon enborrarenkin sua piztuko da. Udalak ikuskizun honetan parte hartzeko deia luzatzen die herri-tarrei. Plazan izango da ikus-

kizuna, arratsaldeko 6ak aldera. Guztia amaitutakoan, gabon enborrak etxera eramateko aukera izango da, ohiturak dioenez, etxea eta abereak babesteko.

Gabon eskean ateratzen den dirua giza helburuetarako erabiliko da: Rwanda, Balkanak, Ezkion erretako baserriaren alde, istripua izandako idiazabalдар baten alde...

Kantuan atera nahi dutenentzat, entseiuak izango dira abenduaren 17 eta 23an, 19:30ean, Gimnasioan.



Gabonetako tailerrak

3 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat tailerrak antolatu dira Gabon egun hauetarako.

3-9 urte bitartekoak, joakoak, eskulanak, antzerkia... izango dute abenduaren 27tik 30era 15:00etatik 17:00etara eta 31n 11:00etatik 13:00etara. Eskoletxean izango dira aisialdiko ekin-

tzak, 1.000 pezetaren truke.

10-16 urtekoak Udal pilotalekuan eta ludotekan izango dituzte aisi ekingiz. Sukaldaritza tailerra, zumearen tailerra, pilota tailerra eta euskal kirolak izango dituzte, 1.000 pezeta ordainduta. Ordutegiak: abenduaren 27tik 30era, 15:00etatik 17:00etara eta 31n 11:00etatik 13:00etara.

Ugaro eskolakoak, etxean

Ugaro eskolako 6. mailako 10 ikasle, 5. mailako 5 (azken hauek, zozketan hautatuak 15eko kopurua osatu arte) eta beraien gainbegiratzailerak izan den Kati Urretabizkaia irakasleak, azaroaren 16tik 22arte, Eskola Ibiltarien bidez parte hartu dute, Aragoikoan. Kanarietako 15, Cadizko 15 eta Legorretako beste 15 ikasle izan dira egun horietan elkarrekin bizitzeko aukera izan dutenak.

Azaroaren 16an trenetaz joan ziren Zaragozara. Eta arratsaldean beste bi taldeekin elkartu ziren. Harrera egitea eta eraman zituzten oparien trukaketa izan zen lehenengo

jarduera. Bigarren egunean, Aspror izeneko lantegia bisitatu zuten. Birziklaketaren prozesu guztia ikusi ahal izan zuten. Aljaferiako jauregian, Aragoiko gortea biltzen den egoitzara joan ziren eta diputatuaren aulkietan eserita egon ziren, azalpenak jaso bitartean. Arratsaldean La Seo izeneko katedralean erromaniko, gotiko, mudejar, barrokoa... bereizteko aukera ederra izan zuten. Azkenik, Pilarikako basiliza eta bere ingurua ezagutu zuten.

Hirugarren egunean, Huescara egiten zuten bidaiak. Bertako elizaren klaustro erromanikoa ikusi zuten eta

ondoren El Grado izeneko urtegia. Morillo de Tou, urtegia egiteko hustu zen herria eta orain poliki-poliki berreraikitzen ari dena, zeharkatu zuten. Ainsa, erdi aroko kutsua duen herri koxkorra ezagutu zuten eta elizako dorre puntarra igo eta panoramika zoragarria ikusi ere. Eta Boltañara joan ziren lo egitera.

Hurrengo egunean, hondamendian dagoen Jánovas izeneko herria ikusi zuten. Gatazka handiko desjabetza jasanez ondoren, biztanleak bidali zituzten herritik urtegi bat eraiki behar zutelako baina oraindik ez dute ezer egin. Torlako herri txikia eta Ordesako parke nazionalen oso gustora ibili ziren, elurra baitzegoen. Arratsaldean, Sabinanigon, Serrabloko Museoan sartu ziren. Bertan Aragoiko biztanleen ohitura eta tradizioak ezagutu ahal izan zituzten.

Larunbatean, 45 ikasleek,

bost taldetan banaturik, "hiria ezagutzeko jokua" egin zuten. Talde bakoitzari kartazal batean 9 galdera, 9 pista eta Zaragozako planoak eman ondoren, erantzunak bilatu behar zituzten. Eta eguerdiko hamabietan denak Pilarikako enparantzan bildu behar zuten.

Igandean, Sistema Iberikoa aldera irten ziren. Veran, Veruelako Monastegi erromanikogotikoa ikusi zuten, ardoaren Museo bat eta eskualde hartako maketa izugarri bat. Tarazonako hiria ikusi zuten, mudejar tankerakoa. Iluntzean, egoitzara iritsi zirenean, igarotako bost egunen ebaluazioa egin zuten.

Astelehenean, begietan malkoak zituztela agurtu ziren beste bi taldeetako lagunekin, beraien artean sortutako adiskidetasuna handia izan baita. Hemendik aurrera, harremank, eskutitzen bidez biziko dituzte.

Errotatxo eta Errota eraberritzen



Ataungo Udala eta Foru Aldundia Larruntza errotatxoaren teilatua eta eraikuntzaren egitura eraberritzeko lanak burutzen ari dira.

Azken urte hauetan Ataungo ondarea berreskuratzen egin duen ahaleginarekin jarraituz, Udalak ekimen honen bitartez eraikuntza hauei dagokien berrikuntza eman nahi die.

Eraikuntza hauek dauden egoera tamalgarria ikusirik, pentsatzekoa da horien konpontzeak ondorioztat ekarriko duen kostu ekonomikoa handia izango dela, horregatik lanak urtero zatika, pixkanaka egiteko asmoa azaldu du Udalak. Momentuz konpontzea lanak errotatxoaren zati batean eta errota handiko teilatuan egingo dira, udan teilatuaren zati bat bertan behera erori baitzen. Zerrategiaren aldea beste batean egingo da.

Lan hauek Aldundiko Ondare Saileko Viteri eta Reza-bal jaunek aginduetako erizpideekin ari dira burutzen.

Bestalde, jakin arazi behar da Udala jada harremanetan jarria dela Garaialde familiarekin, errotaren jabearekin alegia. Hartueman hauen helburua errota eta errotatxoaren jabetza Ataungo herriaren esku gelditzea litzateke.

Eguzki-Berri kalean

Eguzki-Berriren 55. alea eskuragarri izango dugu ostiral honetatik aurrera. Oraingoan ere edukiz bete-bete eginda dator Joxemiel Barandiaran eskolako ikasleek argitaratzen duten aldizkari hau. 250 pezetaren trukean, gure aiton-amonon Gabonen berri izango dugu; Gurasoen txokoan, seme-alaben heziketari buruzko gaiak jorratu dituzte eta beti bezala, bertako ikasleen lanak ezagutzeko aukera

Joxemiel Barandiaranen VIII. urtemuga

Murkondo kultur elkarteak aurtan ere egitarau berezia antolatu du Joxemiel Barandiaranen heriotzaren VIII. urtemuga gogoratzeko. Joan den igandeko irteerarekin eman zitzaion hasiera abenduan zehar luzatuko den egitarau honi. Gainera, pasa den asteazkenetik abenduaren 21a bitartean San Gregoriko eskoletan, "Euskal Herriko Zestogintza" erakusketa ikusgai izango da. Astegunetan iluntzean egongo da irekita, 7etatik 9etara. Larunbatean berriz, goizeko 11etatik eguerdiko ordubata bitartean. Igandean 11etatik 2etara.

Ostegunean, abenduak 16, Marronek aldizkari honen ale batean berri eman genuen "Nere Erraietara" diaporama aurkeztuko du. Iluntzeko 8etan, San Gregoriko eskoletan.

Datozen egunotarako ere antolatu dute ekintzarik. Honela, abenduak 18, larunbatean, Jose Enrique Gayarre-ren organo kontzertua izango da entzungai San Maringo elizan, arratsko 6,30etan. Egun berean baina Aian, meza ondoren Mendiurkuiluko Juanen eskulanen erakusketa ikusi ahal izango da.

Asteartean, abenduak 21, Joxemielek filmaturiko pelikula aurkeztuko da San Gregoriko eskoletan, iluntzeko 7,30etan. Solaskideak Alvaro Arrizabalaga, J.M. Barandiaran fundazioko idazkaria, eta Juan Garmendia etnologoa izango dira.

Hurrengo egunean, abenduaren 22an, eta Joxemiel Barandiaran eskolan, Martxel magoaren saioa izango da eta ondoren VII. Ipuin lehiaketako sarien banaketa. Guztia 2,30etan hasita.

Azkenik, Joxemiel zenaren urtebetetze egunean, abenduaren 31n hain zuzen ere, eguerdiko 12etan lore eskaintza egingo zaio.

Aipatu gainera, ekintza hauek Udalaren babesa jaso dute.

izango dugu. Ohiko atalak ere aurkituko ditugu, hala nola, sukaldaritza, denborapasak eta lehiaketa besteak beste.

Labur-labur

● Asteburu honetan, Lazkao urtero Gerriko liburudendak antolatzen duen liburu eta diska azokan, Jexux eta Jon Aizpurua herritarrek On Joxemieli buruz idatzi berri duten liburuaren aurkezpena egingo da. Aurkezpenean Jexux Aizpurua izango da liburuaren berri ematen.

● Joan den larunbatean, urteroko lege eskolak antolaturiko gaztiña janean 80-90 lagun bildu omen ziren. Jakina denez, ekintza honetatik ateratzen den dirua ikasturte bukaerako irteerak antolatzeke erabiltzen da.

● Nire aldetik Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri On bat opatzea besterik ez. 2000. urtean elkarren berri izango dugulakoan, izan zaitzte ongi.

Agurtzane Bikuña

J. ARANBURU

OINETAKOAK

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu guztioi!

Kale Nagusia, 36

☎ 943 88 01 27 **BEASAIN**



AUTO ESKOLA

Ondo pasa gabonak!

TELEFONOAK:

Lazkao: 943 88 72 99

Beasain: 943 88 18 96

Tere Arruabarrena margolaria

Tere Arruabarrena Berrueta, Eibarren jaio bazen ere, urte asko daramatza dagoeneko Mutiloan bizitzen. Lanbidez ostalaritzan lan egiten du baina bere benetako afizioa pintatzea da. Bere denbora libretik zati handi bat eskaintzen dio pinturari eta baita toki bateko eta besteko erakusketak bisitatzeari ere. Margolari gisara izan duen ibilbideaz zertxobait gehiago jakin nahian berarengana hurbildu gara galdera batzuk egiteko asmoz.

- Tere, noiz hasi zinen pintura lanetan?

- Orain dela hamar bat urte.

- Zeure kabuz hasi zinen lan honetan ala norbaitek deskubritu zuen pinturarako zenuen abilitadea?

- Egia da mundu honetan norberak izan behar duela berezko gaitasuna baina nire maisua Patxi Epelde ordiziarra izan zen.

- Zer da gehien margotzea gustatzen zaizuna, zerk inspiratzen zaitu?

- Gehienbat oleoan pintatzen dut, espatula erabiliz eta batez ere paisaiak ditut gogoko. Erretratuak ere asko egin ditut, askori egin izan dizkiet.

- Eguneko zein momentu hartzen duzu margotzeko?

- Gehienetan gauetan egiten dut eta egia esan oso gustoko dut eguneko tarte hori.

-Badakigu hainbat erakusketa ere egin dituzula, zenbat eta non egin dituzu?

- Orain arte hiru egin ditut, bat Zumarragan izan zen eta beste biak Donostiako Londres hotelean. Beharrezkoak dira jendeari ezagutzera emateko.

-Zure asmoen artean al dago egunen batean herrian Mutiloan ere erakusketaren bat egitea?

- Batek daki, baina zergatik ez.

- Leihaketa askotan parte hartu al duzu?

- Bai, mordoxka batean parte hartu izan dut.

- Eta zer egiten duzu, egindako margoekin?

- Egia esan ez dut saltzeko zailtasun handirik izaten, normalean egin ahala saldu egiten ditut. Bestalde etxean ere asko ditut paretetatik zintzilik.

- Zein dira epe laburrera begira dituzun asmoak?

- Pinturatik bizitzea amets egiten dut.

Iñaki Ugalde



Ostatuko nobedadeak

Irailaren amaieran, aldizkari honetan bertan ematen genuen Ostatuko arduradunen aldaketaren berri eta horrekin batera iragartzen genuen, hainbat gauza egiteko asmoa zeukatela oraingo arduradunek, horietako bat gauzatu da. Hemendik aurrera lo egiteko aukera izango da Mutiloko Ostatur, hiru logela bikoitz prestatu dituzte. Beraz, gure herrira aseturaren bat pasatzeko asmoz, hurbildu nahi duenak lo egiteko tokia ere izango du.

Santa Luzi eguna

Santa Luzi eguna aitzakitza hartuta, herriko hogeiko emakume talde batek afaria egin zuen abenduaren 11n herriko Ostatur, egun hori omentzeko.

Bilera Udaletxean

Abenduaren 17an iluntzeko 9etan, udaletxe-ko areto nagusian bilera bat izango da. Bileran hau herritar guztei zuzenduta dago. Bi gai nagusiren inguruan hitzegiteko da bilera, ba-

tetik Santa Ageda eguneko entsaioak egiteko egunak izendatzea, Gabonen ondoren segituan baitator egun hau ere eta bestetik, San Pedro jailetako egitaraua prestatzen hastea. Bi gai hauez gain norbaitek ekartzen duen proposamenen bat ere jorrazteko aukera izango da. Beraz animatu eta hurbildu egun horretan udaletxera.

Abenduaren 24an etxez etxe kantari

Urtez urteko ohiturari jarraituz, aurten ere, herriko talde bat etxez etxe ibiliko da kantari, herritarrak kantuz pozteko asmoarekin. Hemen ateratzen den diruarekin uda aldean, herritar guztientzat irekia den eskursioa egiten da Euskal Herriko txokoren batera.

Herri inguruan argi berriak

Herriak azken egunotan itxura berria hartu du, herri inguruan jarri diren farola berriak direla eta. Oria baserri paretik hasita herriraino argi berriak jarri dira. Lierni aldera abiatuta Andramaiztegi baserriraino.

GEMA
OINETAKOAK

Gabon zoriontsuak !

Nafarroa Etorbidea,7

☎ 943 88 94 45

BEASAIN



✓ Ileapaindegia

✓ Edergintza

✓ Solariuma

ZORIONAK
ETA URTE
BERRI ON!

Nafarroa Etorbidea, 37

☎ 843 88 02 97

BEASAIN



Airtel®

DEITU

TELECOMUNICACIONE



● **TELEFONIA MUGIKORRA**

20.000 pzta.
DEIETAN

● **TELEFONIA FINKOA**

MINUTUA 5 pzta.tik

● **INTERNET**

DOHAIN

● **ORDENAGAILUAK**

121.990 pzta.tik
(B.E.Z. bame)
+ INPRESORA

● **FAXA**

● **MUGIKORRENTZAT
OSAGARRIAK**

● **ETA ABAR...**

**GABON HAUETAN
HURBIL EGON ZAITEZEN**

ZORIONAK!!

Hemen Airtel:

Oriamendi kalea (Korreosen parean)

20200 BEASAIN

Telf.: 943 80 54 89 - Faxe: 943 80 52 89

TELEFONIA MUGIKORREAN

15.000 Pzta.tik

**GORAKO EROSKETAGATIK
OPARIA ZIURRA**

MULTIOPTICAS

2000 Urteberri

Zorionak



MULTIOPTICAS-ek PROPOSATZEN DIZKIZUN OPARIAK



Prezioa 15.150

GABONETAN
12.125



Prezioa 16.820

GABONETAN
11.900



Billariarentzat
podometroa

Prezioa 5.450

GABONETAN
3.575

Prezioa 8.450

GABONETAN
6.950

Prezioa 12.500

GABONETAN
8.900



Barruko termometroa,
karpokoa kable gabea,
eta erloju iratzargailua



Prezioa 17.500

GABONETAN
12.200



Zuretzat bereziki
MultiOpticas-en

Bergara
Arrasate
Ordizia
Eibar
Errenteria



Prezioa 16.900	Prezioa 13.900	Prezioa 9.500	Prezioa 7.500	Prezioa 18.150	Prezioa 16.000	Prezioa 16.850	Prezioa 14.000
GABONETAN	GABONETAN	GABONETAN	GABONETAN	GABONETAN	GABONETAN	GABONETAN	GABONETAN


V I S I B I L I A



VOLKSWAGEN LUPO-aren ZOZKETAKO ZENBAKI IRABAZIEA

93479 zkia

Ereia 30 egun



prezioa: 9.700



prezioa: 9.200



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA

MULTIOPTICAS - BERGARA - ARRASATE - ORDIZIA - EIBAR - ERRETERIA



Gabon giroan murgilduta

Gabon kutsuko giroa nabari da dagoeneko herrian. Aurtent gainera, Udaletxearen 75. urteurrena dela eta, kaleetan jartzen dituzten eguberrieta-ko ohiko argiez gain, Udaletxea bera ere argiztapen bereziz apaindu dute.

Olentzaro

Olentzaroren etorrera ospatzeko, aurtent, goizean kantueskean irteten diren eskoleta-ko gazteez gain, arratsaldean, ibilaldi bakarra egingo dute herritar eta talde desberdinek, denak batera, hiru karrozek lagunduta. Euskal mitologiaren adierazle izango da lehen karroza. Ez dira faltako beraz, besteak beste, solstizoa, sua eta txalaparta. Hauen inguruan zantantzarrak ibiliko dira eta horien parean izango dira, Aurtzaka eta Ostadar dantza taldeetakoak. Eta hauei jarraituz, arrantzaleak ere izango dira beren tresna eta guzti. Bigarren karrozak aldiz, baserria, euskal bizimodua eta euskal familia ekarri nahi ditu gogorra. Eta azkenik, hirugarren karrozan, Olentzaro izango da protagonista. Honen alboan, herritarrez osaturiko

abesbatza kantuan ibiliko da.

Igartzako jauregitik irtengo dira 17:00ean eta eta bukatu, 20:00ak inguruan egingo da plazan, jaiotza bizia egongo den lekuan.

Ingurugiroaren erakusketa

Abenduaren 17tik 31ra mundu osoan ibiltari dabilen erakusketa ikusteko aukera izango da Artelatz eta Kutxaren eskutik, Usurbe Antzokian. 1995ean, Nazio Batuak sortu zireneko 50. urteurrena zela eta, nazioarteko argazki lehiaketa baten deialdia egin zen 'Mundua zure ikuspegitik' izenburupean. Lehiaketa honek erantzun zabala izan zuen, 153 herrialde desberdinetako 44.000 argazki pasatxo jaso baitziren. Orain, erakusketa hau, mundu osoan zehar dabil lehiaketako hiru kategorietan saritutako lanak erakusten. Guztira 100 argazki ikusgai, gai aldetik aniztasun handia eta teknika aldetik, maila bikaina erakusten duten argazki haue-
tan.

Nekane Altuna

Labur labur

● Batera, presoen aldeko plataformak deituta, manifestazio ixilia egingo da, Euskal Presoen eskubideen alde, abenduaren 31an, 19:00etan, Udaletxe aurretik abiatuta. Deialdia egin dutenak: ELA, LAB, EAJ, AABB, Senideak, Elkarri, Bada Garaia Plataforma, EH eta EB.

● Igartza Jauregiak ireki ditu ateak, bertan ospatzen ari den musikaldi berezarako. **Abenduaren 19an**, Peñafloredako kaparen eskutik, musika iberiar barrokoa izango da protagonista, 'Adiskideak Gortean eta Probintzian' obrarekin. **Abenduaren 30ean**, Andra Maria Zeruratuaren Parrokian, 20:00ean, Donostiako Barroko taldeak eta Loinatz abesbatzak emango dute kontzertua.



AEK-ren ekintza desberdinak

Beasaingo Goiztiri AEK Euskaltegiak, euskalduntze klaseak emateaz gain, euskara kaleratu eta suspertzeko asmoz, ekin-tza batzuk antolatu ditu:

● 10. euskal liburu, diska, bideo eta joku azoka

Abenduaren 14an eman zioten hasiera, eta abenduaren 23a bitarte egongo dira, Kale Nagusiko 32an, behean. Egutegia egongo da zabalik, 5etatik 8etara arratsaldean. Astearte eta larunbatetan, goizez ere izango da bertaratzeko aukera, 10etatik 1era. Euskara Batzordeak lagundurik burutuko da azoka hau.

● Gabonetako postreen ikastaroa

Gabonak gertu ditugula eta, garai hauetan, etxetan famili giroan egin ohi ditugun bazkari-afari horietarako, euskaldunon artean dugun ohitura zabaltzeko asmoz, "Intxaur salsa eta konpota" nola egiten diren ikasteko ikastaroa antolatu dute abenduaren 20rako. Interesatuok, izena emateko azken eguna gaur izango duzue, 943 889340 telefonora deituaz. Ikastaroren prezioa 500 pezetakoa izango da.

● San Tomas Eguna

San Tomas eguneko usarioa jarraituz, txistor festa antolatu dute, abenduaren 21rako. Arratsaldeko 6etatik aurrera, ondo jan eta ondo pasatzeko aukera izango duzue Zubimuzu plazan. Txerria ere zozketatuko omen da !

Anbulantzia berria Gurutze Gorriak

Beasaingo Estanda S.A. Fundazioak, Enrique Lartuondo Fundazioaren bitartez, ambulancia eman dio Goierriko



Gurutze Gorriari. Garai ezin hobean etorri da gainera, larri baimetzelan. Indarrean sartu berri den legeak, lau urtean behin, zerbitzuan dabilen ibilgailuak aldatzea behartzen baitu. Gainera Gurutze Gorrikoak kexu dira Udaletatik jasotzen duten laguntza, Beasain eta beste herri txikiren batekoa salbu, eskasa baita. Orain, ongi hornituriko ibilgailu berri honekin, errazago izango zaie, Goierriko 21 herrietara iristea.

252 milioiko aurrekontua 2.000 urterako

Okerrik ez bada, Udalak abenduaren 23ko plenoan onartuko du datorren urterako aurrekontua. Guztira 252 milioi pezeta gastatuko dira herrian. Dirutza horren zatirik handiena urbanizazio lanek, Pilarreneak eta medikuaren konsultak eramango dute.

Urbanizazioen atalean, Zigor auzokoaren lehenengo zatia egiteko 35 milioi erabiliko dira eta Mujika ondoan dagoen aparkalekua txukuntzeko 27 milioi daude aurreikusita. Pilarrenean gastatzeko 30 milioi erabiliko dira, batez ere altzari eta barruko beste tresnak erosteko. Mediku konsulta berritzeko 20 milioi ditu aurreikusita udalak, lanak udan egingo dira eta haiek bukatu ondoren medikua eta praktikantea biak pisu berean egongo dira.

Datorren urteko aurrekontuan aurreikusitako besteak: ur hornidura eta saneamendua 18 milioi; proiektu berriak egiteko 2 milioi, kaleko gastuak 15 milioi...zerrenda luzea da 242 milioiko kopurua osatu arte.

Idiazabalen tamainako herri batentzat "aurrekontu handia da hau" Antton Irizar alkatearen esanetan. Hala ere Idiazabalen zorra, antzeko herriek dutenaren bataz bestekoaren azpitik dago.

Gabonetako ekitaldiak

Gabon egun hauetarako herriko taldeek hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Abenduaren 24an Parrokiko abesbatzak eta Idiazabalgo txistulari taldeak kontzertua eskainiko dute plazan arratsaldeko 6etan. Goizean Herri Eskolako neska mutikoak ibiliko dira herrian barrena kantuan.

Kirol ikastaroak

Opor egunetan kirola egin nahi duenarentzat ondoko ikastaroak antolatu ditu Kiroldegia: patinetan ibiltzen ikasteko ikastaroa, patinetan ibiltzen dakienak hobetzeko saioak eta boleibol ikastaroa. Guztiak abenduaren 27tik 30era eta urtarrilaren 3tik 5era egingo dira ondoko ordutegietan: patinetan ibiltzen ikasteko saioak 17:00etatik 18:30era, hobekuntza ikastaroa 18:30etik 20:00era, eta



Kukubiltxoren emanaldia

Herriko neska-mutikoentzako ekitaldiak ere izango dira egun hauetan. Abenduaren 30ean, osteguna, Kukubiltxo taldeak Kukubel lana antzetzuko du Idiazabalen. Euskal Herriko ipuin batean oinarritutako istorioa kontatuko dute Mateo Txistuk, Kukubelek, sorginek eta beste hainbat pertsonaiek. Eguraldiak laguntzen badu plazan izango da emanaldia (ordu zehaztu gabe dago). Egun berean haurrentzako txokolate jana ere izango da.

Boleibola 17:30etik 19:30era. Ikastaroetan parte hartu nahi duenak, abenduaren 22rako eman behar du izena. Izen ematerakoan 1.500 pezeta ordaindu beharoko dira.

Urtebetetzeak

Herriko bi taldeek urteak bete dituzte abenduan. Mendi Elkartek 15 urte bete ditu eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi izan dira abenduan. Hilaren 12an mendi irteera eta mendi festa egin zituzten, eta aste barruan diapositiba emanaldia ere izan da. 15 urte hauetan ateratako argazki asko herriko denda eta komertzioetan izan dira ikusgai.

Urteak bete dituen bestea Zirika Irratia izan da, lehen saioa emititu zela 10 urte beteko dira abenduaren 30ean.

Hori ospatzeko 10 orduko saioa egin zuen Zirika Irratiak abenduaren 18an. 10 ordu horietan azken 10 urtetan herrian gertatutakoa gogortzeko modua izan zen, era berean urte hauetan egin diren 247 saioetan parte hartu duten herritarrak ere irratian izan ziren.

Konzentrazioak

Abenduaren 3an konzentrazio jendetsuak egin ziren Idiazabalen. Egurdian Juan Jose Ibarretxe lehendakariak deituta bake prozesuari bultzada emateko. Iluntzean Batera plataformak deituta Euskal presoaren eskubideak aldarrikatzeko. Bietarako deia egin zuten Idiazabalgo hiru talde politikoek.

Xabier Urteaga

Labores Otea

Andra Mari, 1 ☎ 943 16 23 84 BEASAIN

Gurutze-puntua, puntu erdia eta artiletan berezitasuna

Bordatuak eta arropa konponketak egiten dira



JOSUNE ESTETIKA ZENTRUA ETA USAINDEGIA

- ✱ Mikropigmentazioa: bekainak, begiak eta ezpainak
- ✱ Depilazioa: **LASER**arekin, argizari epelarekin eta elektrikoak
- ✱ Presio altuko solariuma: bertikala (ultra azkarra, 8 minutu)

J. M. Barandiaran pl., 3 ☎ 943 88 28 88 ORDIZIA

Juan Mari Irizar odolki lehiaketan irabazle

Aurtengo Ander Deunaren jai nagusietan herriko kaleetan eta herritarren artean giro ona nagusitu da. Asteburuan herriko kaleak musika doinuaz eta kolorez alaituak ikusteko aukera izan dugu, eguraldi onaren laguntzaz.

Txindata musika eskolako ikasleen ekitaldiek eman zieten aurtengo jaiak hasiera ofiziala. Larunbatean berriz, haurrek danborrak Lazkao Antzar Gazteak txarangaren doinupean joaz herriko kaleetan giro paregabea jarri zuten. Egun guztian zehar lagun taldeek beraien mozorroen bitartez herriko txoko guztiak kolore eta xeblekeriez jantzi zituzten. Mozorroturiko talde hauek arratsaldeko zazpietatik aurrera kiroldegian izan genituen beraien abilezien bitartez bertaratu zen ikuslego ugariaren algarak eraginez. Ikusleen artean begiz aukeraturiko hamar herritarrek osaturiko epaimahaiak emaniko epaiaren arabera aurtengo mozorro onenaren saria 'Ormaiztegiko ihesa' izeneko taldeak jaso zuen. Egunean zehar herriko kaleetan girorik onena jarri zuen taldearen saria 'Abetxuko rugbi taldeak' taldeak jaso zuen. Desfilean parte hartu zuten gainerako talde guztiak ere 10.000 pezetako saria ja-

so zuten.

Igandean, berriz, goiz-goizetik enparantzan Euskal Herriko ekoizturiko produktuen azokari bisita eginez produktuen erosteko aukera izan genuen. Bertan ospatu baitziren azokarekin batera Ormaiztegiko XIII. odolki lehiaketa eta III. odolki osagaien azoka eta lehiaketa. Esan behar aipatu biak aurtengoan erabat arrakastatsuak izan zirela. Berauek antolatzekeo Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurugiro departamenduaren laguntza jaso izan dugunez herrian izan genuen Jon Mikel Murua herri-



tarra aurtun nekazaritza ahal-dun gisara, bai epaimahaiko kide bezala eta baita sari banaketa orduan Iñaki Maiora herriko alkatearekin batera.

III. Odolki osagaien azoka eta lehiaketa

Azoka eta lehiaketa honetara odolki osagaiak diren txerria, porrua, tipula, perrexila eta oreganoa aurkeztu zitezkeen.

Txerri aurkezleen artean Ezkio-Itsasoko Urkulei base-

erriko Mari Karmen Barrene-txea izan genuen. Txerrien epaia ematen herrian bizi den Jose Ignazio Aldasoro albaitaria izan zen.

Aipaturiko gainerako odolki osagaien lehiaketara sei partehartzaile aurkeztu ziren; bi herritar eta lau kanpotar. Epaimahaia osatu zuten kideak Jose Angel Lizarraga, Jose Antonio Garmendia, Jose Manuel Elizegi eta Jon Mikel Murua izan ziren. Sariak:

Tipuletan: Xabier Aseginolaza izan zen irabazle. **Porruetan:** Kasilda Iurrita. **Oregano eta perrexilaren sariak** Kasilda Iurritak jaso zituen. **Aurkezpen onenaren saria** Rafaela Peñagarikano herritarrek eraman zuen.

XIII. Odolki lehiaketa

Partaidetza eta arrakasta handia izan zuen aurtengo odolki lehiaketak. 26 harakinek hartu zuten parte; 20 hegoaldeko eta 6 iparraldeko. Epaimahaiak emandako epaiaren arabera Beasaingo Juan Mari Irizarrek aurkeztu zituen odolkirik onenak.

Aitziber Murua

Iñaki Kanpos Bilbon irabazle

Odolki kontuetan herrian espezialistak ditugula epai batek baino gehiagok behin baino gehiagotan argi utzi izan digute. Hain zuzen Ormaiztegiko odolkiek behin baino gehiagotan lortu izan baitute odolki lehiaketetako lehen saria. Azken hilabete hauetan ere horrela gertatu izan da. Hain zuzen, Iñaki Kanpos herritarrek lortu baititu Zumarragako buzkantza lehiaketa eta Bilbon ospatu berria den 'munduko odolki lehiaketetako' lehen sariak. V. edizioan 88 odolkigilek parte hartu zuten.

Gabon ospakizun ugari

Gabonak iristear ditugu eta ondorioz gure herrian ere egun hauek direla eta, ospakizun bereziak izango ditugu. Aurtengo gabon ospakizunei hasiera igandean, abenduak 19, herriko parrokian 12:45etik aurrera izango den Ozenki Zortzikotearen kontzertuak emango die. Ondoren abenduaren 26an ere beste kontzertu bat izango da, Donosti Ereski abesbatzak eskainia, 12:45ean herriko parrokian.

mujika
OINETAKOAK

Nafarroa Etorbidea, 11
© 943 88 27 16 BEASAIN



AZURMENDI
Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA
San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN

Gotzon Izquierdo: "Txikitandik datorkidan zaletasuna da"



Kultur ekintzaz beteriko asteburua

Kultur Elejira ospatu zen pasa den astebukaeran Itsasondon. Urtero egin ohi den moduan, Kultura Elejiraren barruan ekin-tza ezberdinak antolatu zituen Kultura Batzordeak astebuka-erarako. Ekintzen barruan Isabel Agirrezabala ipuin kontala-ria aritu zen ostiralean. Arratsalde atsegina igarotzeko asmoz, haur mordoxka bat inguratu zen udal aretora arratsaldeko zazpietarako. Udaletxeko areto nagusian haurrak nagusi izan arren, ipuinak erakarrira zenbait heldu ere bertaratu zen. Arratsaldeko zazpietan eman zitzaion hasiera ipuin kontake-tari eta pare bat orduz era guztietako ipuinak entzuteko auke-ra izan zuten bertan bildu zirenek.

Larunbatean berriz, urteroko talo festa ospatu zen Errota pilotalekuan. Hotzari aurre eginez herritar ugari hurbildu zen herriko frontoira. Herriko emakumeak taloak egiten aritu zi-ren etengabe arratsalde osoan herritarren sabelak bapo bete-tzeko asmoz. Nahi adina edateko eta jateko aukera izan zuten beraz, bertan bildutakoek.

Herritarrek egindako eskulanek ere beren lekua izan zuten talo festan. Gotzon Izquierdo, Jexux Mari Ibarguren eta ikas-taroetan herritarrek egindako lanak izan ziren ikusgai aipatu erakusketan. Nerea eta Melanie-ren taldearen musikak eman zion amaiera 18:30ean hasi zen talo festari.

Gotzon Izquierdo 46 urteko itsasondotarra, jatorriz biz-kaitarra izan arren, duela 17 urte hiri handia atzean utzi eta Itsasondo bezalako herri txiki batera etorri zen lan arrazoiengatik. Bilboko al-tzari enpresa batean ebanista lanetan aritua da Renfeko langile izatera iritsi aurretik. Beharbada, hortik datorkio egurra lantzeko eta marrazte-ko duen zalentasun hori. Ge-roztik, mazoa, gubia eta olio-pinturak ditu, besteak beste, bere denbora libreko lagu-nak. Arreta eta denbora asko eskatzen duen lana izan arren, bera oso gustura ari-zen dela dio.

Sekula ez duela inongo ikastarorik egin aitortzen du eta, beraz, pentsa liteke txiki-tandik garatuz joan den do-hainaren fruitu direla egun ikus ditzakegun artelan ho-riek. Bere lanen oinarrien ar-tean, paisaiak, baserriak eta erretratuak dira nagusi, baina

bere lan munduarekin loturik dauden zenbait eskulan ere egin izan du inoiz.

Inguruneak itzelezko ga-rrantzia du Gotzonentzat. "Tailatzerako orduan arreta berezia jartzen dut xehetasu-nik txikienean, koloreen ña-bardura ezberdinetan, ondo-ren egurrean islatu ahal izate-ko", dio Gotzonek. Egurra lantzen hasi aurretik, "lehe-nik pago, gaztainondo edo bananondoko tailaren gaine-an marrazkia trazatzen dut, ondoren mazo eta gubiaz marrazkia higatzen jarrai-tzeko. Marrazkia moldeatu eta bukaera perfektu bat emateko, gubia finagoak erabiltzen ditut", zehazten du itsasondotarrak.

Baina ez da hor amaitzen Gotzonen lana, egurrean lan-dutako marrazkiak maiz olio-z margotzen baititu. Tar-teka barnizez hornitzen badi-tu ere, margotzeko gehien erabiltzen duen materiala

olio-pinturak izaten dira. Arkatza, olio, akuarela eta tinta txinatarra dira marrazkiak egiteko erabiltzen dituen la-nabesak. Eskultura lantzeak ez du erakartzen. "Nahiago dut erliebea landu, bertan nire sorterriko paisaia eta koloreak leialago isla baiti-tzazket", dio itsasondotarrak.

Hasiera batean tailak la-gun eta ezagunen artean ba-natzen bazituen ere, egun saltzea erabaki du. Tailak ez bezala, marrazkiak gehienez oparitu egiten ditu jende-aren artean.

Gipuzkoako artisauen el-kartetik bertan sartzeko pro-posamena luzatu badiote ere, berak proposamenari muzin egin dio "erantzukizun han-diegia" dela bide. Halere, erakusketaren batean bere la-nak aurkezteko esaten diote-nean, hutsik ez egiten saia-tzen da. Urtero legez, aurtan ere Kultura Batzordearen deialdiari erantzunez, urte osoan egin dituen lanen bil-duma aurkeztu zuen larunba-tean Errota pilotalekuan ja-rritako erakusketan.

Nagore Etxeberria

Arantxa
Lentzeria
Eguberri on!
J. M. Barandiaran, 3
943 88 76 15 **ORDIZIA**

AIARZA KARROZERIA
EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA
Iurre lantegialdea, 10
943 88 05 65 **OLABERRIA**

ORLEGI **EGUBERRI JAIK**
ONDO PASA
TABERNA **ETXEZARRETA, 3**
ORDIZIA

Udal ikastaroak

Ongizate eta kultura batzordeek antolatutako ikastaroetarako 85 herritarrek emana dute izena. Azaroan hasi ziren euskara ikastaroek gain, astearte honetan hasi da sukaldaritzakoa. 24 orduko iraupena izango du eta asteartean eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara arituko dira, Zopajalen, Txoritegin eta Elorrin, txandaka. Urtarriletik aurrera, argazkigintza, egur tailaketa, pintura, eskulanak eta altzarien zahar-berritzea hasiko dira. Udalak matrikularen %25a subentzionatuko du. Informazio gehiago udaltxean.

Koruaren gonbidapena

Santa Zezilia egunetik elizako koruaren zuzendaria den Julen Telleriak eta Edurne Ormazabal laguntzaileak koruan parte hartzeko gonbidapena egiten diete herritar guztiei. Gabonetako emanaldietarako, asteazkenero 20:00etan entsaiatzen ari dira kultur etxean. Interesatuak ager daitezela.

Iñaxio Imaz berriro finalean

Ezkurraekin batera, bihar, abenduak 18, Galarretan jo-



Arg.: J. Fernandez/Trudi-Foto

San Nikolas txikiak

Abenduaren 6an San Nikolas jantzitako guztiak elkartu ez baziren ere, heldu eta gazte, mordoska ederra bildu zen.

Gabon egitaraua

Abenduaren 19a: Gabon kantu eta jaiotza txapelketa. Meza nagusiaren ondorenean. Herriko neska-mutikoei parte hartuko dute. Atal bakoitzeko 3na sari banatuko dira eta guztiek izango dute sariren bat. Lanak 11:30etarako aurkeztu beharko dira plazara. Ekitaldian, elizako koruaren gabon kantak entzuteko aukera ere izango da. Arratsaldean bideo pelikula haurrentzat kultur etxean.

Abenduaren 24a: Olentzeroren etorrera. Txistulariak, korua, antortxeroak eta herritarak lagun dituela, ikazkin jantzita, Lastala aldetik ailegatuko da herrira 18:00etan. Karrozara igota herriko kaleak zeharkatuko ditu eta ospitaleko bixita egin ondoren plazan amaituko du ibilbidea. Bertan, solasean arituko da umeekin eta opariak ere banatuko dizkie. Ondoren gaztainak erre eta intxaurrekin batera banatuko dira. Antolatzaileek baserri-tar jantzita ateratzeko deia egin nahi diete herritar guztiei.

Abenduaren 25a: Eguberri eguna. Goizetik hasita, kriseilu txistulari taldearen alboradak atariz atari.

Abenduaren 29a: Liburu festa. 17:00etan, herriko liburutegian. Joxean Ormazabal idazlea izango da irakurtzearen garrantziaz sola-



sean. 6. mailako guztiei liburu bana banatuko zaie. 18:30ean, 'Ozenki' zortzikote talde donostiarraren abesti emanaldia pleno aretoan.

Abenduaren 31a: Urte zahar eguna. 8:30ean plazatik irtenda urteroko mendi irtetara Aizkorriara. 17:00etan, buruhandi eta erraldoiak. 18:00etatik aurrera, herriko talogileek egindako taloak probatzeko aukera plazan.

Urtarrilaren 1a: Urteberri eguna. Goizetik hasita, Kriseilu txistulari taldearen alboradak atariz atari.

Urtarrilaren 5a: Errege magoen kabalga-ta. 18:00etan aterako da Madalenatik. Txanbolinpen Erodesi bixita eginda, Portikopen jarriko den estalpean amaituko da.

Zuhaitz eta zuhaixken erakusketa zabalik. Abenduaren 31 arte Jaxinto Antxelmonean. Jai egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

katuko du erremonteko final handia Altuna Ila eta Etxaberen kontra. Biharkoarekin 3. finala jokatu du jarraian Iñaxio Imazek.

Pelota jaialdia

Kirol eskolarrean, bihar, abenduak 18, Goierrri mailako 50en bat neska-mutiko benjamin arituko dira, goizeko

10etatik aurrera Baratze Pelotalekuan.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Preferentea: Touring 2-2 Segura. **Jubenilak:** Segura 1-1 Santo Tomas. **Kadeteak:** Aizkorri 2-1 Ordizia. **Infantilak:** Hamaikak-bat 1-0 Aizkorri.

Asteburuan etxean: Denak zapatuan. 11:00etan kadeteak (Aizkorri-Zestoa). 15:30ean preferenteak (Segura-Mundarro). 17:30ean infantilak (Aizkorri-Almen).

Labur-labur

● **Zopajaleko mus txapelketa.** Ximon eta Sebastian Garaialdek irabazi zieten Patxi Garziandia eta Benito Gerrikori.

● **Informatika ikastaroak.** Abenduaren 14an hasi ziren

turismo bulegoko gelan. 20 lagun ari dira 3 taldetan.

● **Oinarri demokratikoen alde.** Abenduaren 18an enkartelada Madalenako biribilgunean. 26an egun guztiko gose greba. 31n espetxeetako isladapena goizeko 9etatik gaueko 9etara.

● **Preso eta errefuxiatu taldeak antolatuta.** Abenduaren 24an kantu-eskea 9:00etan plazatik hasita. Iluntzean Olentzeroren etorrerara presoan argazkiekin. Ondoren konzentrazioa. 31n, konzentrazioa 19:00etan. 'Euskal presoak EHra' maindireak balkoietan jartzeko gonbitea egin nahi dute.

● **Mendiko federatu txartela** berriro edo ateratzeko, mendi elkartekoren batekin edo Txetxu Ormazabalekin jarri behar da harremanetan.

Joseba Telleria

Hator, hator



Amnistiaren alde etxez etxe kantari ibiltzeko asmoa dute abenduaren 24an. Entsaioetara etortzeko gonbitea egin nahi diete herritarrei. Astear-tean eta ostegunean bilduko dira Kultur Etxean 21:00etan.

Eguberrien harira saski baten zozketa ere egingo du Gestorak. Mendiko materiala zozketatuko dute urtarriaren 5ean. Txartelak Joxepanen daude salgai. Kantari nahiz zenbakiak erosiz Amnistiaren alde egitea eskatzeaz gain le-rrero hauen bitartez Amnistiaren aldeko batzordeak eske-rrik beroenak eman nahi diz-kie urte osoan antolatutako ekitaldietan parte hartu duten guztiei.

Udalbiltza

Udalbiltzaren sorkuntza eta helburuekiko atxikipen mo- zio politikoa dela eta, ez ohi-ko osoko bilkura egin zuen Udalak azaroaren 27an. Bil- kura honetan udaleko 8 or- dezkarri eta beste hainbat he- rritar bildu ziren jai giroan eta honako lau puntu hauek onar- tu zituzten aho batez: **1.-** Udalbiltzaren helburuak, egi- tasmoak eta izatea bere egiten ditu Zaldibiako Udalak. **2.-** Bertako kide izateko boron- datea adierazten du bide ba- tez. **3.-** Erabaki honen berri Udalbiltzari emango zaio. **4.-** Komunikabideen bitartez ja-

kinaraziko zaie herritarrei erabakia.

Giza eskubideen alde

Batera plataformak gaur eta urte zahar egunean herriko plazan biltzeko deialdia egin du Giza eskubideen alde lelo- pean. Bilkura ixil hauek 20:00etan hasiko dira. Zaldi- bian ez da Batera plataformar- rik eratu, izan ere helburu be- rarekin lanean ari den beste talde bat dago, Herri ekime- na. Hemendik aurrera Bate- rak deituko dituen ekitaldiak Herri ekimenak bideratuko ditu. Aipatutako bi deialdie- kin bat egin dute herriko hainbat taldek, Parroki elkar- tea, Zubiburu elkartea, Gazte- lu elkartea, Beti Gazte elkar- tea, Jarrai, Futbol taldea, Pe- lota eskolak, Txaranga, Elkar- rri, Dantzariak, EHko udal taldea, HB, Amnistiaren alde- ko batzordea, Zaldibiko Gaz- te taldea, Damixelak, Zape...

Itxialdi baraualdia

Euskal presoan eskubideak errespetatu dituzten eskatzeko presoak eurak egiten ari diren gose greba mugagabearekin batera bost eguneko baraual- dia egingo dute, zaldibitarrek eta herriko hainbat taldek, ba- koitzak egun batean egingo dute barau. Baraualdi hau abenduaren 27an hasiko da iluntzeko 8tan eta abenduaren



Kirol emaitzak

Eskolarteko txapelketa

Benjaminak: B.mixtoa (3.maila) : Beasaingo ikasto- la-Lardizabal (0-4) B.mixtoa (4.maila): Alkartasuna Lize- oa "D"-Lardizabal (3-4)

Alebinak: Neskak: Lardiza- bal-Jakintza "B" (11-0) Mu- tilak: Lardizabal - Jakintza "A" (6-3)

Infantilak: Neskak: Jakintza "D"- Lardizabal (0-4) Muti- lak: Lardizabal-San Benito (11-4)

Federatuak

Jubenilak: A.D.Lagunak- Zaldibi (6-2) **Neskak:** Zaldi- bi-Billabona (11-1) **Mutilak:** Laskorain Ikastola-Zaldibi (1-2).

Eguberriarako Kultur jarduerak

Udaleko Kultura komisioak eguberri hauetarako zenbait ekital- di antolatu ditu. Kronologikoki aipatuko ditugu.

Abenduaren 17an, 22:30-etan Herriko Antzokian Imuntzo eta Belokiren Loussianara noa diska berriaren aurkezpena. Sa- rrera: 300 pzta

Abenduaren 21ean, Santo Tomas eguna. Iluntzean txistor ja- na Zaharrean egoitza, Beti Gazte antolatuta.

Abenduaren 29an, 16:30-etan herriko Elkartean Taupadaren Mari Sorgin antzezlan, txikienei zuzendua.

Urtarrilaren 3an, 16:30etan Herriko Antzokian Peter Rober- tsen Marratxo ikuskizuna.

Urtarrilaren 10an, 22:00-etan Herriko Antzokian Beasaingo Errail antzerki tadearen Sukaldea antzezlan.

Abenduaren 27, 28, 29, 30 eta urtarriaren 3, 4, 5, goizeko 11etatik 12.30etara, Kultur Etxean 7/11 urte bitarteko haurren- tzat, Plastika tailerra. Matrikula: 1000pzta.

Parrokiko ekitaldiak

Azken orduan jasota informazioa da Parrokiatik bidalitakoa. Laburbilduz: Abenduaren **18tik 19ra:** Elkarteko aitortza; **21ean,** Gazteen Eguberri prestakuntza. **25ean,** Meza nagusia. **26an,** gaixo eta zaharrei Eguberri pazkoa eramango zaie Me- za nagusitik. **28an,** 3,30etan plazatik abiatuta, bisita alaia he- rriko zahar eta gaixo guztiei. **Urtarrilaren 6an,** Beasaingo Za- harren egoitzara bisita, 4etan irrenda.

31n bukatu Batera platafor- mak deitutako kontzentrazio- arekin. Egunero talde berri bat sartuko da gose greban. Herriko talde guztien orde- z- kariak bildu nahi dituzte eki-

men honekin. Bihar larunba- ta arratsaldeko lauretan Kul- tur Etxean erabakiko dira txanda aldaketak.

Inaki Gurrutxaga - Saroi Jauregi



MIRENTXU

Gabon
zoriontsuak
denoi!

LIBURUDENDA • OPARIAK • PAPERDENDA • FOTOKOPIAK • FAXA



**MONT
BLANC**

Nafarroa Etorbidea, 7
☎ 943 88 04 55

BEASAIN



Kale Nagusia, 1
☎ 943 88 14 57



Zorionak eta urte berri on!



Sasieta Mankomunitateko
kideok eskerrak eman nahi
dizkizuegu aurten egin
duzuen lan bikainarengatik.
2000. urtea ere aurtengoa
bezain ona izan dadila.
Zure esku dago!

MoviStar
activa



SINETSI EZINEZKO PROMOZIOA!

Ba, sinets ezazu, **movitel2000**n zure Pack Movistar Activa prezio ezin hobean aurkituko duzu

Etor zaitez agortu baino lehen!



Phillips

Boch

Mitsubishi Trium



Abenduan

Zure pack Movistar Activa

6.900

pta.tik aurrera*

 **movitel2000**

Mugikortasun Digitaleko Zentroak

Toribio Alzaga - DONOSTIA - ARCCO.ren parean - Tel.: 943/46 09 63
Oriamendi - Etxe Ubi (Laboralaren parean) BEASAIN Tel.: 943/ 80 50 89

Telefónica
Movistar

XI. liburu eta diska azoka

Eguberrietako egitarauari hasiera emango dion azoka aurren ere ospatuko da Udaletxeko arkupean. Hiru egun iraungo dituen ekitaldi honekin, liburu eta disko guztietan %10eko deskontua egingo da.

Euskal Liburu eta Diska Azoka honen inguruan antolatutako lehen ekintzetan haurrak izango dira protagonista nagusiak. Arratsaldeko 4,45etatik 6etara etxeko txiki-ekienek Kiki, Koko, Moko eta Flax pailazoaren azken bideoaren aurkezpena ikusteko aukera izango dute. Emanaldi hau Udaletxeko Areto Nagusian burutuko da. Baina honenkin ez zaie ez dibertsioa amaituko, ze seiretan azokan bertan Txirri, Mirri eta Txiribitonen diska berria entzun ahal izangodute. Baita Takolo Pirritx eta Porrotxena ere; *Plisti-Plasta*. Ondoren, gazte eta helduei iritsiko zaie txanda. Entzungai izango diren diskak honako hauek izango dira: Su eta Gar, Kashbad eta Amuriza, Tapia eta Leturia. Hala ere, liburuentzako tarte txo bat ere izango da. Izan ere, 19,30etan *Joxemiel Barandiaran* liburuaren aurkezpena egingo dute egileek be-
raiek.

Larunbatean, goizeko hamarretatik aurrera euskal diska berrien emanaldi gehiago izango dira. Besteak beste, Olatz Zugasti, Jabier Muguruza eta Imuntzo eta Beloki entzun ahal izango dira. Dena den, musika saio hau, *Aralar*, *Parke Naturala* liburuaren aurkezpena egiteko moztuko

da 12,30etan.

Arratsaldeko bostetan berriro ere emango zaie hasiera kultur ekitaldiei. Udaletxeko Areto Nagusian txorizugarri buruzko diapositiba eta bideo emanaldia eramango da aurrera. Ez ahaztu, iazko txorimaloen argazkiak ikustez gain kopiak eskatzeko aukera ere izango dela azokan. Ondoren, Lazkao trikitilariak giroa alaituko digute zazpirak arte. Orduan, Xabier Mendi-guren bere azken liburua aurkeztuko baitu; *Nerabearen biluzia*. Hitzaldi honen ondoren, euskal musika gehiago entzuteko aukera izango da Udaletxeko arkupean. Amaiera emateko, Kantu-afaria egingo da Gerrikon, iparraldeko kantariekin.

Euskal Liburu eta Diskoen Azoka igandean bukatuko da, nahi duen guztientzat salda beroa doan eskainiz eguerdiko leian.

Baserritarren biltzarra

Gaur, ostirala, Hermandad de Labradores delakoaren batzar orokorra izango da Lartxai Elkartearen ondoko lekuan. 21:00etan hasiera emango zaion bilkuran, batez ere, batzorde berriaren aukeraketa eztabaidatuko da, orain arteko balantzea egin ondoren.

Presoei buruzko hitzaldia

Abenduaren 22an, 19:30ean, Kultur etxean. Hizlariak: Zumarraga eta Aldonondo preso ohiak eta Juan Mari Olano.

Elordi Garcia



Rwandari buruzko argazki erakusketa eta produktu salmenta

Rwandari buruzko argazki erakusketa eta produktuen salmenta Rwandan hainbat proiektu martxan jarri nahi dituzte Lazkaotik, Leonardo Esnaola misiolari lazkaotarrarekin elkarlanean. Gi-harra herrixkan eskolatu gabeko haurrentzat ikas-txoko baten sor-tze eta sustapenera bideratzeko hainbat ekimen egiten ari dira egiten egun hauetan herrian.

Erakusketa eta salmenta

Abenduaren 17tik 31ra bitartean, Rwandako hainbat argazkire-kin batera bertako eskulan eta produktu ipiniko dira ikusgai eta salgai. Kultur Etxeko Erakusketa aretoan izango da erakusketa eta merkatutxoa. **Ordutegiak:** Abenduaren 17, 20, 21, 22, 23, 27, 28, 29, 30 eta 31n, arratsaldez, 16:30etik 20:00etara. Aste-lehenetan, azoka egunetan, goizez ere irekita egongo da, 11:00etatik 13:00etara. Larunbatetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Eta igandetan, 12:00etatik 14:00etara.

Hitzaldiak

Astean zehar 'Kanpo zorra, betiko zorra?' eta 'Bidezko merka-taritza'ri buruzko bi hitzaldi izan dira. Abenduaren 22rako hit-zaldian, Rwandan zer gertatu den eta zein egoeratan dagoen aztertuko dute, bertako gertakizunak oso gertutik bizi izan di-tuzten pertsonen eskutik. **Hizlariak:** Jesus Jauregi, Caritas Es-pañako Laku Handietarako arduraduna; Luis Felipe Soto, Me-dicus Mundiko arduraduna Nembako (Rwanda) ospitalean; eta Manuel Segungo Aizpurua, Rwandan 35 urtez misialaria. Uda-letxeko Batzar Aretoan izango da hitzaldia.

Zawopi gabonekin bat

Urtero bezala, aurren ere, Zawopiko arduradunak hasiak dira Gabonetako ekitaldiak prestatzen. Eguberriaren xarma haurren-gan isladatzen denez hobekien, Zawopi taldea gaztetxo hauei protagonismoa ematen saiatzen da. Abenduaren 25ean Lazkao Txiki Zelaian egiten den Jaiotza Biziduna dugu horren erakus-le garbia. Egun berezi horretan Zawopin izena emana daukaten 60-65 bat haurrek partehartzen dute. Lehenbizi, meza nagusian kantatzeaz, irakurtzeaz,... arduratzen dira. Ondoren, Olentzero lagun dutela zelaia joaten direlarik.

Urtarrilak 5 eta urtarrilak 9 ere egun ezagunak dira lazkaotarren artean. Lehenengoan Errege Kabalgata ikusteko aukera aurkeztu zaigu arratsaldeko 6,30etan. Bigarrena, berriz, Asto-txo Eguna da. Bertan, Egiptorako Ihesaren aurkezpena egiteaz arduratzen dira Zawopik zuzendutako haur eta gazteak.



Bolari eta Tokalari egun arrakastatsua

Gipuzkoako Bola eta Toka federazioak antolatuta, abenduaren 8an, bolari eta tokalari eguna ospatu zen; giro ederrean ospatu ere.

Goizeko 9etan hasi eta 13:30ean amaitu zen bolate saioa, eta 54 bolarik parte hartu zuten. Jose Luis Agirre izan zen irabazle; bigarren Antonio Alustiza; hirugarren Alfonso Retegi; eta laugarren Iñaki Uribe. Trofeo bana jaso zuten.

Tokalarien artean 13 partaide izan ziren eta saio honetako garailea Inurategi izan zen eta bigarren Ugarte-



mendia, hauek ere trofeo banaz sarituak izan ziren.

Ondoren Oatza sagardotegian 100 bat lagun bildu zi-

ren bazkaltzera, bazkal ondoren 12 omenduei plaka eta diploma bana eman zitzairen. Zeraingo Udalari eta Liztormendi elkarteari ere diploma

Konzentrazioa

Abenduaren 3an, eguerdiko 12etan, Juan Jose Ibarretxe lehendakariak, pakea eta giza eskubideen alde, egindako deiari jarraituz 35 lagun bildu ziren Udaletxe aurrean 5 minutuko konzentrazio ixil batean.

Gabon kantak

Gabon kantuen entseiuak jadanik hasiak dira eta hilaren 21 eta 23an gaueko 9etan izango dira azken entseiuak.

bana eman zitzairen bolarien alde egin duten lanagatik. Omenduen artean Antonio Alustiza eta Martin Etxaluze bolari zeraindarrak egon ziren.

Mari Flor Mendizabal



Udalbiltzari atxekimendua

18an, 13:00etan, Udalbiltzari Udal honen atxikipena agertzeko asmoz, Osoko Bilkura egingo da udaletxean. Beraz aukera honetaz baliatuz bertarako gonbidapena luzatzen da udaletxetik.

San Nikolas irteera

Aitxuri Herri-eskolako ikasleak San Nikolas egunean eskean irten ziren, ikasleen erabakiz, bildutako dirua (64.747 pezeta) Turkiara bidaliko da. Aurtengoan apez-

piku Iñaki Labaka eta Oier Irastorza ibili dira.

Gabon gau eguna

Goizean 9etan Aitxuri herri-eskolako ikasleak aterako dira kantuan. 11etan, eskolaurreko haurrak. Helduak, 14:30ean, baserriz baserri ibiliko dira kantuan eta 18:30ean, herrian zehar.

Eguberri jaialdia

Abenduaren 26an izango da

XV. Eguberri jaialdia, Orkatz eta Orkatz Txiki abesbatzen eskutik, Parrokian, 19:00-etan.

Gabon Zahar gava

2000. urteko lehenengo orduak Zegaman bertan pasatzea bultzatu nahi du Kultur etxeak. Tabernetan banatze-ko ezustekoak prestatuko dira Kultur etxetik.

Edurne Albizu

OSTEOPATIA MEDIKU ZENTRUA

Rikardo San Vicente Dr. Koleg. Zkia. 4371

Pariseko Bobigny Unibertsitateko Medikuntza Fakultatean Osteopatian diplomatua

- ✖ **Lunbalgia, dorsalgia, zerbikalgia, sorbalda** mindu eta gainontzeko lokomotozio-aparatuaren arazo mekaniko-funtzionalen eskuzko medikuntza tratamendua.
- ✖ **Tendinitis, gihar, tendinoso eta gihar-eskeleto arazoen elektromedikuntza** bidezko tratamendua.

Ordutegia: 16:30etik 20:00etara. Aldez aurretik txanda eskatu

☎ 943 880 728

Garmendia Otaola 7 behea.

BEASAIN

IKASTEK AKADEMIA

AKADEMIA INTEGRALA

☎ 943 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN

UNIBERTSITATE MAILA:

- Orain larunbatetan ere bai
- ✓ EHU, Oñati, Arrasate...
- ✓ Enpresaritza, Ingeniaritza
- ✓ Arkitektura
- ✓ Kimika, farmazia...

EGUBERRIETAN IKASTARO TRINKOA:

- Abenduaren 20tik urtarrilaren 7ra
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Ziklo formatiboa
- ✓ Batxilergoa
- ✓ Ordutegi zabalak

LEHEN ETA BIGARRREN HEZKUNTZA:

- Hizkuntza eta matematika indartzeko
- ✓ Ortografia
- ✓ Irakurketaren ulermena
- ✓ Idatzizko espresioa
- ✓ Kalkulua eta buruketak

Hezkuntzako profesionalak
rren zerbitzuan

Goierri-
ritan

Ordizian Euskararen Aholku Batzordea sortu da: Euskararen normalizazioa helburu

Ordizian Euskararen Aholku Batzordea sortu da. Ordiziako euskararen inguruko taldeen bilgunea da eta, Ordizian euskararen normalkuntza lortzeko helburu du. Datozen lau urterako plan estategikoa burutzen ari dira Aholku Batzordean. Ordiziako Udaleko Euskara zinegotzia den Julen Agirrek (EH) kontatu dizkigu xehetasunak.

Euskararen Aholku Batzordea Udalaren ekimena da. Udalak elkarlanerako foro bat osatzeko proposamena egin zien Ordizian euskararen normalkuntza lanetan diharduten elkarte eta taldeei. Oso erantzun ona izan du ekimenak Julen Agirre zinegotziak



Zutik eta ezkerretik hasita: Loinaz Agirre (Goierritarra); Garbiñe Mendizabal (Udala), Mari Jose Urkiola (Urdaneta), Arantxa Aizpuru (Urdaneta), Ana Oiarbide (Oianguren), Maixabel Zuaitz (AEK), Mikel Leunda (Hitzaro).

Eserita: Josune Agirrezabala (Egunkaria), Rafa Sebastian (Hitzaro), Manolo Gorospe (Bertso eskola), Jexux Aizpuru (Goierri L.E.) eta Julen Agirre (Udala). Argazkian, Euskal Herrian Euskaraz eta Jakintza ikastolakoak falta dira.

adierazi digunez. Aholku Batzordea ondorengo taldeek osatzen dute: Hitzaro, Bertso Eskola, Urdaneta ikastetxea, Oianguren ikastetxea, Jakintza ikastola, Goierri Lanbide Eskola, Egunkaria, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Udala eta Goierritarra.

Bilgunea

Euskaigintzan diharduten agente ezberdinen bilgunea da Aholku Batzordea. Erakunde ezberdinen ahalegin eta egitasmoak ezagutu eta koordinatzeko lekua.

helduen euskalduntze-alfabetatzea, administrazioa, aisia, kirola, merkataritza, erlijioa, komunikabideak, kulturegintza eta corpusa; euskara elikatzea agitalpen, komunikabide, euskarazko kultur eskaintza eta abarren bidez.

3.- Helburu eta ekintza zehatzak. 32 helburu zehatz inguru, arloz arlokoak. Hauetako bakoitzarentzat hizkuntza neurriak eta ekintza zehatzak proposatzen dira.

“Plana bat da eta bakarra. Aholku Batzordeko kide diren erakunde ezberdinen asmo eta ahaleginak plan bakarrean biltzen dira. Horrek hizkuntza normalkuntza bideari bateratasuna ematen dio eta bitartekoen optimizazioa dakar”, argitu du zinegotziak.

Lau urterako plangintza markoa definitu da. 2000.etik 2003.era. Eta 48 milioi inguruko diru inbertsioa aurrakusten du.

Lau urterako plana

Aholku Batzordearen Plan Estrategikoak bi erreferentzia nagusi ditu. Bata Eusko Jaurlaritzak onartu berri duen Euskara Biziberritzeko Plana da. Bestea, Euskararen Gizarte Erakunde Kontseilua lantzen dabilena.

Datozen urteotako erronka nagusienak hiru mailatan bereziko dira.

1.- Helburu orokorra: euskararen erabileraren normalkuntza, euskara demografikoki eta funtzionalki normalizatzea. Ordizian maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean euskararen berreskurapen osoa lortzea.

2.- Helburu espezifikoak: euskara ondorengoetaratzea etenik gabe, belaunez belaun, familiaren, eskolaren eta helduen euskalduntze-alfabetatzearen bidez; arlo ezberdinetan euskararen erabilera normalizatzea, familia,

Elkarlan bideak zabalduz

Herri inizatibak eta inizatiba publikoak bat egiten dute Aholku Batzordean. Udaleko eta gizarte erakundeetako ordezkariak biltzen dira bertan eta horrek elkarlanerako eta ulermenerako foro bihurtzen du batzordea.

Plan estategikoa

“Euskararen Normalizazioa euskararen erabileraren normalizazioa da; euskara demografikoki eta funtzionalki normalizatzea. Hori ez da, baina, egun batetik bestera egin daitekeen gauza. Horrek prozesu bat eskatzen du.

Helburu batzuk finkatu behar dira, giza zein diru bitarteko batzuk jarri eta epe batzuk zehaztu. Eta horretarako ezinbestekoa da plangintza”, dio Agirrek.

Eta horixe izango da Aholku Batzordearen zeregina: Ordiziari begirako Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoa diseinatzea, hau Udalari proposatzea, bere exekuzioaz arduratzea eta betetze mailaren jarraipena egitea.

Plana gizarteratu

Plan estategikoa alderdi politiko eta gizarte sektore ezberdinei aurkeztuko zaie orain, beraien ekarpenak egin ahal izan ditzaten. *“Baina benetan arrakastatsua izan dadin guztion lana ezinbestekoa da. Une honetan modu iraunkorrean lanean ari garen taldeez gain, hizkuntza neurriak eta ekintza zehatzak aurrera eramateko, herriko talde, elkarte eta herritar guztion beharra izango dugu”.*

Eguberriak, jostailuen garaia

Haurrei jostailuak erosteko gomendioak

Eguberriak atarian ditugunean, askok eta askok, jostailuak erosteko garaia heldu zaigula pentsatzen dugu. Denok dakigu urtean zehar baino askoz jostailu gehiago erosten dugula Eguberrietan. Hala, esan dezakegu, urteko sasoi honetan, urtero, Estatu mailan, 60.000.000.000 pezeta inguru gastatzen dela jostailuetan.

Jostailuetan gastatutako dirutzaren aurrean, galdera hau datorkigu burura: zergatik gastatzen dugu hainbeste diru egin berezi hauetan? Ez ote dugu jostailua opari soltzat hartzen?

Galdera honi erantzuteko orduan azpimarratu behar duguna zera da: jostailua ez da opari hutsa, jostailua umeen garapenean baliabide garrantzitsua da eta hori urte osoan, eta ez egun hauetan bakarrik, kontuan izan behar dugu.

Umearentzat jolastea behar-beharrezkoa da. Jaiotzen garenetik, jolasteko beharra dugu, plazer handia ematen baitigu, honek. Jolasak pozpozik hazten eta bizitzan go-

zatzen laguntzen digu.

Nork ez du gogoan umetan zenbat ordu pasatzen genuen jolasten, jolasten jolasteagatik, hau da, jolasteak ematen zuen plazer hutsagatik? Hauxe, plazer hori, da jolasaren funtsa.

Gaur egungo gure umeek jolasten ez dakitela, askotan eta askotan, esan ohi dugu, baina hori ez dela egia esan behar dugu. Agian, jolas batzuk eta jostailu batzuk alda-

**Jolasetako
protagonistak, umeek
izan behar dute, ez
jostailuek**



tu egin dira, baina jolasteko beharrak eta gozatzeko gaitasunak ber-berak dira.

Gaur egungo bizimoduaren erritmoak eta gizartearen pentsaerak jolasari laguntzen ez dionez, oso-oso kontuan eduki behar ditugu jolasteko behar diren baldintzak.

**Denbora,
lagunak,
lekua, jostailuak**

Umetan behar adina denbora hartu behar da jolasean ibil-

tzeko eta horretarako norberak libreki eta bere gisara aukeratu behar du jolaserako momentua. Taldeka edo lagunekin jolas eginez, elkarrekin bizitzen eta gauzak konpartitzen ikasten da. Lekuak egokia eta eragingarria izan beharko du, eta jostailuek bariatuak eta behar adinakoak izan beharko dute, gaitasun desberdinak gartzeko. Jolasetako protagonistak, umeek izan behar dute, ez jostailuek.

Mamen Antelo

PEALE

ZURE BAKERO DENDA

Levi's
Bonaventure
Replay
Guess
Liberto

Korreo, 25 | Garibai, 6 | Nagusia, 42
TOLOSA | DONOSTIA | BEASAIN

rainbow

San Inazio, 2
Errementari, 5

BEASAIN
TOLOSA

rainbow rainbow rainbow rainbow
**GEUK
DISEINATUTAKO
ATERKIAK**

943 16 09 65
943 67 41 43

- POLTSAK
- ATERKIAK
- BIDAI ARTIKULUAK
- MARROKINERIA
- GERRIKOAK ETB.

Urte Berri on!

ARANA, 1
943 88 93 88
BEASAIN

**LURRAZPIKO
JAIA !!**



Jostailuak adinez adin

Egun berezi hauetan, jostailuak dira jaun eta jabe, eta askotan umeen nahiari eta beharrari ez diogu behar adinako garrantzirik ematen. Hori dela eta, kontuan izan behar diren hainbat puntu aztertuko ditugu jarraian:

1.- Aldez aurretik umeak zer nahi duen eta zer behar duen aztertu beharko dugu.

2.- Bere adineko eta bere garapen egoerako jostailuak aukeratu hurrengo ezaugarriak kontuan edukiz:

0 urtetik 2ra: Umea ingurua ezagutzen eta esploratzen hasten da. Horretarako jostailu mugikorrak, uretako jostailuak, pilotak, ahokadurak, gomaz-

ko eta trapuzko panpinak, eraikuntza errazak, kotxe handiak eta trizikloak beharko ditu.

2 urtetik 5era: Umeak esperimentatu, eraiki, irudikatu, mugitu eta helduen ekintzak imitatu behar ditu. Helburu hauek lortzeko jostailuak, hauexek dira: 3 gurpileko bizikletak, auto txikiak, kargatzeko eta deskargatzeko gauzak, eraikuntzak, ahokadurak, puzzleak, ipuinak, ipuin grabazioak, grabagailuak, telefonoak, hatzekin margotzeko pinturak, plastilinak, moztortzeko arropa, zurgin mahaia, sukaldetxoak, musika tresna sinpleak, autoak, garageak, trenak.

6 urtetik 10era: Taldeko jolasak, sortzea eta egi-tea, antzeztea eta arauekin jolastea dira nagusi. Helburu horiek lortzeko, aukera handia dugu: bizikletak, gomak, uztaiak, monopatinak, baloiak, saskiak, autoak, eraikuntzak, mekanoak, trenak, auto elektrikoak, garageak, puzzleak, musika-tresnak, panpinak, txotxongiloak, moztorroak, esperimentu-jokoak, mahaikoak, ordenadorekoak eta adierazpen jokoak.

11 urtetik aurrera: Jolasean lankidetzak eta lehaketak garrantzia handia dute. Arauetako jostailuekin jolasteaz gain, eurek asmatu eta ikertu behar dute. Horretarako, esperimentu jokoak, mahaiko jokoak, ordenadore jokoak eta horretarako jostailuak beharko dituzte.

3.- Umeei jostailuak erostea ez da nahikoa, beraiekin jolasean ibili behar da, elkarrekin jolasean denok gozatzeko aukera izango baitugu. Jolasak ez du adin mugarik eta benetako plazerra da beraiekin jolasean ibiltzea. Beraiekin eta beraiekin egunero zerbait ikasten dugu.

Bukatzeko, Olentzerok edo (eta) Erregeek ekarritako jostailuari, hemen aipaturako baldintza guzti-guztiak betetzen dituen jostailu horri, umeak ez badio kasurik egiten, bazter batean uzten badu alegia, eta jostailuaren kaxarekin jolasean ari dela, konturatzen bazarete, ez hasarretu. Azken finean, jolasean ari da eta hori da garrantzitsua.

Umanue
Ume Jantziak
Puerikultura
© 943 88 71 94
Nafarroa Etorbidea, 4 BEASAIN

BIÑASPRE
USAINDEGIA
OPARIAK
ESTETIKA ZENTRUA
Opariak Gabonak 99
K. Nagusia, 8 ☎ 943 88 13 37 ORDIZIA

KiTTō
Iturralde, 1 BEASAIN
ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON GUZTIOI!
OSINBELTZ
Zaldizurreta BEASAIN

KIXMI
Gabon zoriontuak denoi!
Artesania Opariak
K. Nagusia, 28
☎ 943 16 02 48
ORDIZIA

ARTEKA
● Esku lanak
● Ikastaroak
● Opariak
● Enmarkazioak
☎ 943 65 55 77 ☎ 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 Andra Mari, 5
TOLOSA BEASAIN

'Aralar Parke Naturala'

Gema Arrugaeta, Joxepa Madariaga

Aralar Parke Naturala izendatu zutenean Gipuzkoako Foru Aldundiak Aralarri buruzko liburua atera nahi zuela eta, Gema Arrugaeta Ordiziako argazkilariarengana jo zuen. Arrugaetak idazleak aurkitu, Karlos Aseginolaza eta Joxepa Madariaga, eta 'Aralar Parke Naturala' liburua kalean da. Hiru Aralarzaleen fruitua da.

Elkarlanean egindako liburua da: Gema Arrugaeta ordiziarrak egin ditu argazkiak, Karlos Aseginolaza idiazabaldarrak gidoia egin du eta Joxepa Madariaga lazkaotarrak forma eman dio gidoiari.

Diputazioak 1.000 liburu kaleratu zituen eta "gehienak beraien artean banatu omen zituzten. Berrargitaratzeko asmorik ez zutela ikusita, gure kabuz argitaratu dugu liburua, dirua gure poltsikotik jarrita. Pena da horrelako lan bat kajoian gordeta edukitzea".

Durangoako liburu eta disko azokarako argitaratu zuten liburua. Gero ere Goierriko liburutegietan salgai egongo da 7.000 pezetaren truke. Lizarrustiko parketxean ere bai. Gabon inguru honetan Lazkaon eta Beasainen izango diren liburu azoketan ere salgai izango da.

125 argazki

25 x 31 zentimetroko formatodun liburua da. 200 orrialde eta 125 argazki ditu. Aralar ezagutzeko, Aralarren gozatzeko, Aralar behin betirako gogoan edukitzen lagunduko digun liburua da.

Aralar ezagutzeko, Aralarren gozatzeko, Aralar behin betirako gogoan edukitzen lagunduko digun liburua da.

Aralarraren sorreratik gaur egunera bitarteko historia agertzen da bertan. Aralarren sorrera, Aralarko gizakia, Erromatarren garaia, Aintzina landaredia eta fauna, Kristautasuna, Baserria, Hiribilduak, Enirio-Aralarko Mankomunitatea, Realengo

edo Aralarko Batasuna, Artzantza, Lehen industrializazioa, Komunikazioak, Olak eta errotak, Desamortizazioak, Gaztainondo eta haritzen gaitzak, Bigarren industrializazioa, Mendiaren industrializazioa, Gaur egun eta Parke Naturala atalak lantzen dira.

Karlos Aseginolaza gidoigileak adierazi digunez, "gaur egungo Aralar nondik datorren eta zergatik den horrela adieraztea nahi izan da. Ez da ibilbide liburua, ez da liburu teknikoa, tarteko zerbait da".

Irakurtzeko atsegingarria egin nahi izan dute. Aralar bera jarri dute hizketan, "Aralar oraindik bizirik dagoelako. Ingurua nola ikusten duen kontatzen digu, baita ere berarekiko tratamen-

dua nolakoa den... Bukaeran ere elkarbizitzarako errespetua eskatzen digu." Lazkao Txikiren bertsoak, Sarasua anaien bertsoak, poesiak... tartekatu dituzte.

Argazkiak testuaren osagarri dira. Liburua egiten ari ziren bitartean ateratakoak dira argazki gehienak. Urtaro ezberdinetan ateratakoak, paisaiak, ganadua, artzainak, landareak... Denetarik.

Larrialdi deia

Aralarren defentsa egiten du liburuak, hasieratik bukaeraino. Aldi berean, Aralarrek larrialdi deia botatzen digu. "Aralar, gure ingurua bezala, aldatzen ari da, arrisku handian ikusten da Aralar eta garraisi bat izan nahi du liburuak, Aralarren ahotsean. Ea hurrengoentzako eraguk ezagutu dugun bezala,



Liburuaren egileak: Gema Arrugaeta, Joxepa Madariaga eta Karlos Aseginolaza.

Pub **YUBER** Pub

Umore onez zorionak eta Urte Berri on!

Zaldizurreta K. BEASAIN

Gabon zoriontsuak eta Urteberri on!

BASAKANA

ITURRIOZ, 11 BEASAIN

NAGASAKI

Taberna

Urte Berri on!

☎ 943 88 15 67

J. M. Iturrioz BEASAIN

urala' liburua kalean eta Karlos Aseginolaza dira egileak

edo hobeto, uzten dugun Aralar", diote hirurek.

Ildo horretan, elkarbizitarako proposamenarekin amaitzen da liburua. "...Gizakiok lasai bizi zaretelarik naturako gainerako partaideok ere lasai bizi gara. Ez dut gogoko neurrik gabeko txikizioa, ez dut gogoko nire barnea zulatu eta hodian bitartez kilometrotako tunelak egitea. Presaka bizitzeak heriotz-unea bizkortzea besterik ez dakar eta erabaki hori hartzeko norbera nor bada ere, besteak horretara bultzatzeak, behartzeak, zentzu handirik ez du. Patxada, la-saitasuna eta pazientzia ez dira diruz, hainbeste maite duzuen diruz!, erosten..."



Aralarren erditzea

"... Uretan murgilduta, lozorroan bezala, urteak neramatzan. Inguratzen ninduen itsasoa barea zen, gazia baino gozo samarra gehiago; izan ere asko baitziren nire parean itsasoratzen ziren ibaiak, ur geza, garbia eta freskoa zekarten ibaiak. Sakonera gutxikoa zenez "nire itsasoa", ni inguratzen ninduen itsasoa, egunez beti jasotzen genuen eguzkiaren gozotasuna bere baitan bizi ginenok; gauez, berriz, doto-

re isladatzen zen ilargia uretan. Hantxe aritzen zen dantzan, bere buruari so, oraindik ez badakizue ere oso astro pertxenta baita ilargia!...

... Uretatik lehenengo irten zirenak eta aldi berean gaur egun garaienak direnak dira mendi zaharrenak, familiako asaba zaharrak, 190-204 milioi urte dituztenak: Intzeko Dorrea edo Iru-mugarrieta (1430 m.), Ganboa (1412 m.), Alotza eta Pardarri (1396 m.)..."

ORKI OPARIAK

Gabon zoriontsuak!

Nafarroa Etorbidea, 5

☎ 943 88 10 50

BEASAIN

EDARITEGIA

Jar

Urte Berri on!

KAFETEGIA

Nafarroa Etorbidea, 27

☎ 943 88 86 81

BEASAIN

80 pertsonentzako tokia



Sagardotegi-bodegako menuak

BABARRUN JANA

- ✕ Babarrunak odolki eta azarekin
- ✕ Baserriko oilaskoa
- ✕ Etxean egindako postreak
- ✕ Bodega: Luberrri (beltza), Malon de Echaide (gorria)

2.300 pta.

SAGARDOTEGIKO MENUA

- ✕ Bakailu tortila
- ✕ Bakailu takoa piperradarekin
- ✕ Txuleta brasan errea
- ✕ Etxeko postreak
- ✕ Bodega: Luberrri (beltza), sagardoa txotxean

2.400 pta.

MENU BEREZIA

- ✕ Iberiar urdaiazpikoa
- ✕ Kogoiolo entsalada antxoa eta izokinarekin
- ✕ Bakailu eta baratxuri feskotz beteriko hojaldreak
- ✕ Ahate magreta edo txuleta brasan errea
- ✕ Etxeko postreak
- ✕ Bodega: sagardoa txotxean, Luberrri (beltza), Malon de Echaide (gorria)

2.900 pta.



☎ 943 885 829

Herriko plaza OLABERRIA

Etorri eta egin menua zure neurrira!

PUB



sugaar

A s t o k a l e
O R D I Z I A

Asto karrera Gabirian abenduaren 31n, herriko gazteek antolaturik

Urteko azken arratsari ukitu berezia emateko asmoz eta herriari bizitasun apur bat eskainiz, Urte Zahar egunerako asto karrera antolatu dute Gabiriako gazteek. Korta sagardotegitik Ostatura, 1,8 km, egin beharko dituzte astoek, nor lehenago iritsi. Lasterketa amaitutakoan, festa izango da Gabirian.

Zumarraga inguruan aurkitu dituzten hamar bat astorekin egingo dute lasterketa. Lau hankako astoen gainean, Gabiriako gazteak joango dira. Beste inork parte hartu nahiko balu ere, atea irekita daude. Aurkeztekotan norberak ekarri beharko du bere aberea.

"Lasterketa izena eman badiogu ere, ez pentsa aurretik inor entrenatzen ibilia de-



Beste herri batzuetan ere egiten dira asto lasterketak eta festak, argazkian Lazkaokoa. Gabiriarren txanda da oraingoan.

nik! Erdi brometan izango dela pentsatzen dugu, umore betean, baina guztiok bada-kigu hasiera eman orduko bakoitzak bere astoari egingo diola arre", diote antolatzailerik.

1,8 kilometroko ibilbidea

Abenduaren 31n, arratsaldeko 5ak inguruan, Korta sa-

gardotegiaren aurretik irten-go da lasterketa eta Ostatu aurrean bukatu. Ibilbidea 1,8 kilometrokoa da, ia dena maldan gora. "Zenbaitek astoak ez direla goraino iritsiko badio ere, ziur gaude nola-hala lortuko dugula, beti ere animalien oinarritzko eskubideak errespetatuz; astoek burugogor fama badute

ere kostako zaie gainekoena berdintzen", adierazi dute gabiriarrak umorez.

Festa

Behin lasterketa amaituta, festak jarraitu egingo du, taberna eta elkarteak irekita egongo baitira. Kanpoan musikak bazterrak giroten lagunduko du. "Asto gainean jartzeko eutsi ezinezko gogoa duenak ere izango du bere abileziak erakusteko aukera".

Gazteen ekimena

Ekimena gazteen eskutik sortu bazen ere, herriko Udalak, tabernek eta elkarteek laguntza eskaini dute. Gazteek lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkie laguntza eman dietenei.

Honela, herritarrei eta kanpotarrei gonbitea luzatu nahi diete Gabiriako gazteek, Urte Zahar arratsean behintzat Gabiriara joateko, "milurteko berria ondo hasteko ez baitago zaharra hobeto amaitzea bezalakorik".

HERRIKOA TABERNA
Pintxo mundialak
Giro abertzalea

Elkano Kalea ORDIZIA

ITZALA
taberna
Urte Berri on!
Zaldizurreta, 3
☎ 943 88 30 24 BEASAIN

ORDIZIAN eta BEASAINEN

Urte berri on!



- Etxebizitzak
- Apartamentuak
- Lokal komertzialak
- Garajeak
- Kalitaterik oneneko eraikuntzak

S.A.

Filipineta, 13 - behea ☎ 943 88 49 50 ORDIZIA

Ibilgailuak

salgai

➔ Honda dominator motorra salgai. 650 c.c. Egoera onean. NA-AH matrikuladua. Asier. 943881791 - 608577287.

➔ Nissan Patrola salgai. SS-AD matrikuladuna. Egoera onean. 943 682052. Gaez deitu.

➔ Audi Coupe kotxea salgai. 95. urtekoa. 656741709.

➔ Suzuki Address modelo-ko scuter motorra salgai. Matrikulatua. Erabili gabea (zozketa batean egokitua). Prezio interesgarria. 943187162.

➔ Seat Malaga, 1.500 salgai. SS-Z. 125.000 pezeta. Egoera onean. Gaez deitu. 943160214.

➔ Suzuki DR50 motorra salgai. Egoera onean. 943180102.

➔ Kawasaki GPZ 400 motorra salgai. Egoera onean. 943731872 - 943731282.

➔ Opel Tigra salgai. Horia. Extrak. 40.000 km. 96koa. 943886709. Gaez deitu.

➔ Nissan Trade 2000 furgoneta salgai. SS-AF. 943161941 - 689916999.

➔ Volkswagen Golf GTI 16 V, salgai. Extrekin. SS-AD. Asier. 943800384. Gaez deitu.

Bestelakoak

salgai

➔ Berogailuaren akumula-dorea salgai. Berria. Egoera onean. 943887146.

➔ Eskiak, makilak eta botak salgai. Oso ongi zainduak. Prezio interesgarria. Boten zenbakia: 441/2. 619749637.

➔ Olivetti idaz makina elektronikoa salgai. 943882278.

➔ Gasoleozko kaldera salgai, berogailu eta ur beroarentzat. Prezio onean. 943180264.

➔ Kawai markako pianoa salgai, egoera onean. 943884303.

➔ Sutarako egurra salgai. 943723504. Gauetan deitu.

➔ Hyundai autoentzat bali-
o duten 16"-ko llantak sal-
gai. Oso merke. 943882907.
Gaez deitu. Ibon.

➔ Egurra txikituta saltzen da, sukaldetarako. Pagoa, haritza edo pinua. Etxeetara eramaten da. 943882695 (bulego orduetan deitu).

➔ Pentium 100 ordenagai-lua salgai. Interneteko akze-sorio guztiekin. 943885445. Gaez deitu.

➔ Esne tankea salgai: Ma-nus CRFM. 250 litrokoa. Oso egoera onean. Artzai-nentzat egokia. 94680900 (mezua utzi). Iñaki.

➔ Cherny markako pianoa salgai. Egoera onean. 943882875.

Etxebizitzak

errentan

➔ Iruñean pisua behar dut alokairuan. 943883990. Ain-hoa.

salgai

➔ Jatetxea, taberna eta bi pisu salgai, Altsasun. 4.000 m²ko lursailarekin. 948563512. Gaez.

➔ Etxebizitza salgai Bea-sainen: 2 logela, egongela, sukaldea, bainua, terraza eta trastalekua. 60 m². 656711266.

Garageak

errentan

➔ Garagea alokatzen da. 943885698.

salgai

➔ Garagea salgai. Itxia. Beasaingo J.M. Iturrioz kale-an. 943889028 (Jabier). Eguerdietan deitu.

Animaliak

salgai

➔ 2 txakurkume, 'Blanco del Pirineo' arrazakoak, salgai. 943180484. Pili.

➔ Seter ingeles txakurku-meak salgai. Desparasitatuak eta txertatuak. Pedegree one-koak. 943216684 - 670873227.

➔ Cocker hispaniel ingele-sa eskaintzen da arraza hobe-tzeko, pedigree onekoa. 943886164.

opari

➔ 2 artzain txakur opari. Hilabete ingurukoak. Har-rak. Norberak txertatu be-harko ditu. 943885792.



AUSGEGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✳ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✳ Berogailuak
- ✳ Iturgintza
- ✳ Zeramika erakusketa
- ✳ Bainuko altzariak
- ✳ Erreforma osoak



ZINEA

GOIENIZ:

Abenduak 30, 'La novia de Frankenstein' eta 'Dioses y monstruos', 21:00etan, Usurbe Antzokian.

LEGORRETA:

Abenduak 19, 'Bean', 17:00etan, Herri Zinema.

Abenduak 23, 'El show de Truman', 20:30ean, Herri Zinema.

Abenduak 26, 'Alicia en el Pais de las maravillas', 17:00etan, Herri Zinema.

Abenduak 30, 'El coleccionista de amantes', 20:30ean, Herri Zinema.

ORDIZIA:

'El club de la lucha'
Astelehena 20: 19:30

'De ladron a policia'
Larunbata 25: 19:30 - 22:15
Igandea 26: 16:45

'Caprichos del destino'
Igandea 26: 19:30 - 22:15
Astelehena 27: 19:30

'La novia de Frankenstein'
James Whale
(EEBB, 1935))

Frankenstein Neskalaguna, Frankenstein eta Gizon Ikus-tezinarekin batera, James Whale handiaren maisulanak ditugu, 1931-1935 bitartean eginak, eta Beldurrezko Zinearen oinarritzko arauak eta elementu estetikoak finkatu eta genero izaera eman ziotenak; ezin uler daiteke zine mota honen ondorengo garapena. Whalek piztutako monstruo mitiko hauek aintzakotzat hartu gabe.

Frankenstein Neskalaguna, betiko zinearen adierazpenik eder eta finetako bat dela esatera ausartzen gara, inolako beldurrik gabe.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Atorrasagasti
(Bustuntza - Ordizia) 943 88 29 34.

Abenduak 17-18: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain) 943 88 01 52.

Abenduak 25-26: Larnaga
(Kale Nagusia, 4 - Ordizia) 943 88 18 28.

dantzak

BEASAIN:

Abenduak 23, Euskal dantzen jaialdia Ostadar dantza taldearen eskutik, Usurbe Antzokian, 22:00etan.

antzerkia

ZALDIBIA:

Urtarrilak 7, Beasaingo Errail antzerki taldearen 'Sukaldea' lana, antzokian, 22:00etan.

musika

BEASAIN:

Abenduak 19, Peñaflordako Kaperaren eskutik kontzertua, Igartza jauregian, 18:30ean.

Abenduak 30, Donostiako Barroko Taldearen eta Loinatx abesbatzaren eskutik, Andra Mari Zeruratuaren parrokiaren, 20:30ean.

ORDIZIA:

Abenduak 18, Santa Ana Txiki eta Santa Ana abesbatzen eskutik Eguberri kontzertua, Elizan, 20:00etan.

Abenduak 25, Eguberri Kontzertua 'Beti Argi' musika bandaren eskutik, Plaza Nagusian, 13:00etan.

Abenduak 31, Ohikoa den 'Kattali' doinua joz, Beti Argi banda eta Laguntasuna Errondailarekin, 7:30ean.

txotxongiloak

ORDIZIA:

Abenduak 18, Behi Bi's taldearen 'Txakur beltz, handi eta iletsua', Udal Liburutegian, 11:00etan.

Abenduak 27, Errekamari taldearen 'Aiton-amon eta bere biloben eguna', Jubilatuen egoitzan, 18:00etan.

hitzaldiak

LAZKAO:

Abenduak 22, Rwandari buruzko hitzaldia, Udaletxe-ko Batzar Aretoa, 19:00etan. Hizlariak: Jesus Jauregi, Luis Felipe Soto eta Manuel Segundo Aizpurua. Informazio gehiago Lazkao-ko kronikan.

Abenduak 22, Presoei buruzko hitzaldia, Kultur etxean, 19:30ean. Hizlariak: Zumarraga eta Aldanondo preso ohiak eta Juan Mari Olano.

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



*gizarte-ekintza
obra social*

bestelakoak

BEASAIN:

Abenduaren 23 arte, X. Li-buru, diska, bideo eta joku azoka Kale Nagusiko 32an. Egutero zabalik arratsalde, 5etatik 8etara.

Abenduak 21, San Tomas eguna 18:00etatik aurrera, Zubimuzu plazan, AEK-k antolatuta.

ORDIZIA:

Urtarrilak 2, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak, Majori kiroldegian, 17:30ean. Sarrerak Barrenan salgai.

ikastaroak

BEASAIN:

Intxaur saltsa eta konpota ikastaroa, AEK-k antolatuta, abenduaren 20an. Izen emateak: 943-889340. Matrikula: 500 pezetan.

LAZKAO:

Eziko Udalekuak antolatuta, aisialdiko begirale eta zuzen-

dari ikastaroa izango da. Izena emateko eta informazio gehiagorako telefonoa: 943-333880.

erakusketak

ATAUN:

Abenduaren 21era arte, Euskal Herriko zestogintza erakusketa, San Gregorioko eskoletan.

BEASAIN:

Abenduaren 30era arte, VIII. pintura lehiaketako lanak, Aterpe tabernan.

Abenduaren 31ra arte, Mundu osoan zehar dabilen ingurugiroari buruzko argazki erakusketa Usurben.

LAZKAO:

Abenduaren 31ra arte, Rwandari buruzko argazki eta produktu erakusketa, Kultur Etxean.

ORDIZIA:

Abenduaren 21ean hasita, 'Miramon. Zientziaren kuxagunea', Barrenan.

Joxemigel Barandiaranen filmak

Joxemigel Barandiaranek filmaturiko pelikularen aurkezpena egingo da abenduaren 21ean, Ataun San Gregorioko eskoletan, 19:30ean. Alvaro Arrizabalaga (Joxe Migel Barandiaran Fundazioko idazkaria) eta Juan Garmendia (etnologoa) izango dira hizketaldian.

Egunkariaren alde bertso jaialdia urtarrilaren 1ean

Ordizian, urtarrilaren 1ean, 18:00etan, Herri Antzokian, izango da Euskaldunon Egunkariaren aldeko bertso jaialdia, Argi Berri elkarteak antolaturik. Bertsolariak, Gipuzkoako Herriarte txapelketako finalistak: Andoni Egaña, Julen Zulaika eta Iñigo Manzisidor, Zarautz Txiki taldekoak; eta Jesus Mari Irazu, Amaia Agirre eta Txomin Garmendia, Erniope taldekoak.

AZAROAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- **Ai, ama!**
Arantxa Iturbe (Alberdania)
- 2- **Borrokaren gorrian**
Bikila (Txalaparta)
- 3- **Hezur gabeko hilak**
Xabier Montoia (Susa)
- 4- **Pasaia blues**
Harkaitz Kano (Susa)
- 5- **Whiskey koloreko gauak**
Paddy Rekalde (Txalaparta)

DISKOAK:

- 1- **Su ta gar**
'Homo sapiens?' (Gor)
- 2- **Berri txarrak**
'Ikasten' (Gor)
- 3- **Tapia eta Leturia**
'Bizkaiko kopla zaharrak' (Elkar)
- 4- **Kashbad**
'Hesiak' (Esan ozenki)
- 5- **Betagarri**
'80/00' (Esan ozenki)

Baga-Biga Kulturgaiak emanako zerrenda

Abenduaren 27tik urtarrilaren 9ra arte, Medicus Mundi taldeak antolatuta, 'Moviento sin Tierra', Barrenan.

mendi-irteerak

Beasaingo mendizaleak:

Abenduak 26, Peña Vieja.



Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



- ✓ Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
- ✓ Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
- ✓ Egutero menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta batz besta

MANDUBIKO BENTA jatetxea

MANDUBIKO GAIÑEAN
Urolatik Goierriarako bidean

Tfnoa.: 943 88 26 73



Beasaingo ikastolako lehen ikasleak 1969.urtean

1965eko urtarrilaren 7an Beasaingo ikastolan hasi ziren lehen ikasleak dira. 1969. urtean, bere andereño Iñake ezkontzen zela eta, ustekabeen guraso batzuk eramanda, txistua jotzera joan ziren Loiolara. Josetxo Zufiaurrek utzi digu argazkia

Ezkonberriak: Antton Sukia eta Iñake Irastorza.

Zutik: Iñaki Garijo, Imanol Bereziartua, Jose Luis Madrazo, Lourdes Argiñano, M^a Angeles Orts, M^a Jose Kerejeta, Irune Zufiaurre, Idoia Bengoetxea, Arantxa Gastesi, M^a Isabel Mendia, Ana Arregi, Ane Gorrotxategi eta Josu Bujanda.

Makurtuta: Migel Angel Ruiz de Azua, Iñigo Elozegi, Xabier Andueza, Juan Martin Agirre, Iñaki Erguin, Jose Luis Etxezarreta, Pello Olea, Martin Irizar, Gustavo Lopez eta Patxi Zaldúa.



GOIERRI Ikerketaren Zentrua
Gidatzeko eta armen baimenak

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30etara.

Larunbatetan: 10:00etatik 12:00etara.

Zorionak eta Urte Berri on!

99-12-25ean eta

2000-01-01ean itxita

Garagartza Plaza 10

☎ 943 888734

ORDIZIA



ETXEBE
TABERNA



*Gabon zoriontsuak eta
Urte Berri on!*

Zaldizurreta kalea

BEASAIN



Rubiorena
jatetxea

*Zorionak eta
Urte Berri on!*

AURREZ PRESTATUTAKO PLATERAK

**GABONETAN ETA BAITA URTE OSOAN ERE
PLATERAK PRESTATZEN DITUGU ZURE
ETXERA, ELKARTERA, KUADRILEN
BAZKARIETARA, e.a. ERAMATEKO**

- Eguneko menua
- Dastatzekoa
- Lanekoa
- Karta

Tfnoa.: 943 88 57 60



Van Cleef & Arpels

PARFUMS DE JOAILLIERS
PARIS

Birmane

Lirain LURRINDEGIAK GABON ZORIUNTSUAK OPA DIZKIZUE

SAN IGNACIO, 14 - 20200 BEASAIN - Tfn. 943 88 93 90 • Pza. GARAGARZA, 1 - 20240 ORDIZIA - Tfn. 943 80 53 27

Ah diseño

diseinu grafikoak

Publizitatea
Errotulogintza
Diseinua
Katalogoak
Komunikazio integrala

Ah diseinu grafikoak zure enpresaren begi-komunikazio beharrak betetzeko zerbitzu oso bat eskeintzera datorriz.

Gure zerbitzuak, zure irajina egin edo eguneratzeak, berau aplikatu, bai paper edota katalogoetan, inprimaketa, banatzea, fotomekanika eta abar barne, baita eraikuntzaren barne eta kanpo seinalizazioa, ibilgailuen errotulogintza, publizitatea, zorro eta hantzen diseinua, erakustazoketarako kartelak eta standen diseinua etab... Lehenengo probatik, lan bukatua zure esku uzterarako prozesu osoa gure gain hartzen dugularik, komunikabideetara eza-gutazazirarte, enpresen gaur egungo beharrak ongi ezagutzen ditugulako.

Ah diseinu grafikoak, diseinu eta publizitateko zerbitzuak gain, honakoak eskeintzera datorriz:

- Argazki kalitadedun plotter zerbitzua, kartelgintza eta panelgintza, transparentziak eta abar. (914mm.ko zabaleradun HP DesignJet 2500 cp plotterarekin).

- Eraikuntza edo instalazioen kanpo eta barne seinalaketa.

- Irailaren tratamendu digitala.

- Binilo ebaketa:

Errotulogintza (ibilgailuak, kanpo-kartelak, seinalizazioak eta...)

Pegatinak

Margotzeko plantillak

- Erakusketa, biltzar, hitzaldi eta abarretarako panel eta kartelen muntaiak eta inprimaketa.



ibilgailuen errotulazioa

Kale Nagusia, 5
Tel/Fax:943882257
c.p. 20200 Beasain
Gipuzkoa

Badakizu lo egiten...

**EKEINTZA, ABENDUAREN
31RARTER LUZATUA**

eta amesten?

sekretua hemen daukazu

Zuretzako prestatu dugun gure 50. urtemugako eskeintza berezia

SF 575



Modu ezin-hobe batean lo egin eta esertzeko. Bi motore ditu bizkar eta hankak erregulatzen.

"Goldlabel" SF 16 LS-1 koltxoia duela.

Orain bakarrik 780.500 Pta
160.000 Pta aurrezten dituzu

SF 535



Atsedean hartzeko modu eroso bat. Eskuz erregulatzen dira bizkar, buru eta hanken kokapena eta altuera.

"Goldlabel" SF 16 LF-2 koltxoia duela.

Orain bakarrik 448.900 Pta
100.000 Pta aurrezten dituzu

SF 175



Lo egin eta esertzeko modu atsegin bat. Bi motorek erregulatzen dituzte bizkar, eta hankak. Oinordea berriz SF 14 LF-5 koltxo bategi jasoa.

Orain bakarrik 471.800 Pta
90.000 Pta aurrezten dituzu

SF 115



Oinarritzako modelo bat. Oheburua erregulatuta daiteke, eta erdialdea SF 14 LF-5 koltxo bategi sendotzen du.

Orain bakarrik 238.600 Pta
45.000 Pta aurrezten dituzu

amets
ATSEDENERAKO SISTEMAK

nagusia, 40
20.200 Beasain
Gipuzkoa
Tel/Fax:943 88 68 51

50
Urte Matra
SWISSFLEX®

Oheak eta osagaiak
Zorro nordikoak
Burukoak
Izarak
Koltxo-estalkiak
Alfonbrak
Kutxinak
Gortinak
Besaulki mantak
Luma edo fibrazko nordikoak



1.999KO URRAREN 57K. AZARAREN 258A 160/200 JAKO NEURIRIKOTAN ERABILTZA. AKATIS ITXOTZAKOIA UZAN ETX.